



ABORTUA

Erabakitzeko eskubidearen alde



- **Nafarroa Garaiko Pirinioak** Populazio galera atzeraezina izan ez dadin borrokan
- **Bostok Photo** Lau argazkilari, prentsaurrekoetatik kanpoko istorioen bila
- **Gure Esku Dago** Giza katean parte hartzeko jakin beharrekoak
- **Net Hurbil** Britainiako txano gorriak hazkunde eredu agortuan
- **Jagoba Arrasate**, Realeko entrenatzailea «Desiratzen nago jokoaz hitz egiteko, baina apenas galdetzen didate»

Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparralde Euskal Herrian 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (24 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOAPERA
HILAKEN 17101



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko apirilaren 13a, 2.411. zenbakia

ASTEKO GAIA

NAFARROA GARAICO PIRINIOAK Herriei bizirik eusteko, elkarlana. JON TORNER ZABALA / 4

PERTSONAIA

JAGOBA ARRASATE: «Goi mailan, jokoarekin zerikusirik ez duten gauza gehiegi daude». SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

PREKARIETATEAREN AURPEGIAK Autogestioan oinarritzen dugu gure bizimodua. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 15

HIPERAKTIBITATEA Gehiegi eta oker medikatutako haurrak. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 16

SAGARDOTEGIAK XIII. mendeko burdinolan XXI.eko kupela. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 18

IRITZIAREN LEIHOA

SUAREZEN HERIOTZA: TRANTSIZIOA BIRKONTATZEN

GARBINE BIURRUN MANCISIDOR / 20

HURKOAREN GOGOAN AZTARRIKA DABID ANAUT / 22

ASKEGUNETIK URTEBETERA LANDER ARBELAITZ / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Muga baten krakatekoak. AMETS ARZALLUS / 22

BERTSO BERRIAK Gurutze gorria. JULIO SOTO / 23

ERDIKO KAIERA

BOSTOK PHOTO Gauzak bestela konta daitezkeelako.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 24

MAX ETA MORITZ Shin Chan bezalakoen aitzindariak 150 urte bete dituzte. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 28

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ, G. UBEDA GOIKOETXEA / 30

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI, G. UBEDA GOIKOETXEA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Pianodoinuak Musscherentzat. MYRIAM GARZIA / 33

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

GURE ESKU DAGO Kendu giltzarrapoa erabakitze eskubideari. URKO APAOLAZA AVILA / 37

EUSKARAREN ERABILERA BERMEON Udalarekin euskaraz, kalean gaztelaniaz nahiago. MARIJO DEOGRACIAS / 40

ABORTATZEKO ESKUBIDEA Gallardónen legearen aurrean feminismoa batuta eta indartsu. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA, ONINTZA IRURETA AZKUNE, DANI BLANCO / 43

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 42

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 42

NET HURBIL Txano gorriak: energia trantsizioa ere bada jokoan. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Herriei bizirik eusteko, elkarlana

Pirinioetako herritarrek diote bizirik jarraitzeko bizirik daudela sinetsi eta sinetsarazi behar dutela, eta bailara guztiek elkarlanean egin behar dutela aurrerantz, despulazioaren mamuak malko eta lantuei entzungor egiten dielako, entzungor agintariak mendialdeko biztanleen eskaera eta proposamenei.

| JON TORNER ZABALA |

Argazkiak: Dani Blanco



Orotara 3 eta 16 urte bitarteko 350 bat ikasle daude Garralda, Otsagabia eta Erronkariko ikastetxeetan eta Auritz, Erro eta Luzaideko eskola unitarioetan. Argazkian, Garraldako haurrak atseden-orduan; 100 ikasle ditu D ereduko zentroak.

AMPARO VIÑUALESEK 18 urte daramatza erizain Izabako osasun zentroan, eta 2011ko azarotik zinegotzi da Erronkariko Udalean. Bailarako eta inguruko zonaldeetako gabeziak ongi ezagutzen ditu. Martxoaren 14an Nafarroako Parlamentuan izan zen. Hizlarien tribunara igo eta landa-eremuetan gutxieneko osasun zerbitzua bermatu beharraz aritu zen, alderdi politikoen artean gaiari buruzko eztabaida piztu aldera. Ekimena babestu duten 170 udalen izenean mintzatu zen Viñuales. Alferrik. Lege-egitasmoa ez zen tramitera onartu, UPNk eta PPK aurka bozkatu eta PSN abstenitu egin zelako.

Gertatutakoak agerian utzi ditu mendialdeko argi-ilunak: behar gorrien aurrean elkar hartu eta aitzina egiteko herritarren borondatea batetik, eta hiri-zilborrari so bizi diren agintarien “axolagabekeria” eta “mespretxua” bestetik, ekimenaren sustatzaileek salatu dutenez. Hitz leun edo gogorragoekin, gauza bera adierazi digute solaskide guztiek: Erronkarin ari da lanean Viñuales; Aezkoa ibarrean, Garraldako eskolako irakasle Mikel Aoiz eta Ainhoa Mendiarekin bildu gara, baita Abaurregainko alkate eta abeltzain Patxi Encajerekin ere; eta Zaraitzun, Otsagabiako interpretazio zentroko Gustavo Goienarekin eta Bizirik Gaude elkarteko kide Jezabel Orozekin.

Politikarien jokabide mingarria

Kalitatezko osasun zerbitzua bermatzea xede duen egitasmoa Nafarroa Garaiko Pirinioetako biztanleek abiatu zuten, UPNren Gobernuak maiatzaren 5ean lehen arreta eta larrialdi zerbitzuan egingo dituen aldaketa polemikoen beldur. “Ez dugu eskatzen zonaldean ospitale bat eraikitzeke, gutxienekoak bete daitezela baizik; lekuan lekuko beharren azterketa egin eta baliabideak gure errealitateara egokitzea”, esan digu Viñualesek, osasun-sarearen paisaia malkartsua hizpide: “Badakigu hiriburutik urrun gaudela eta orografia berezia daukagula; horregatik eskatzen dugu gurean protokolo bereziak ezartzeko, berdin bailarako Uztarrozen zein Erriberako Corellan. Beharrak bertsuak dira, eta hala islatzen du gure proposamena Nafarroako kolore orotariko 170 udalek babestu izanak”. Jarrera hotzagoa azaldu dute, oster, gaiari buruz eztabaidatzearekin ere uko egin dioten talde parlamentarioek.

“Lotsagarria da”, dio Izabako erizainak: “Politikari batzuek non gauden ere ez zekiten, ez zeukaten argumenturik... PSNren jarrera bereziki mingarria iruditu zaigu”. Nabarmendu digu bitarteko gehiago baino, daudenak zuzen baliatzeke eskatzen dutela: ibilgailuak egokitu, anbulantzia zerbitzuak mantendu, irisgarritasuna –garraio publikoa–

ren sarea– hobetu, larrialdietan helikopteroak erabili eta profesional kualifikatuak izatea, besteren artean. “Tamainako muturrekoak jasota ere borrokan jarraituko dugu. Bailaretakoak ‘oso gureak gara’, baina errealitatea egoskorragoa da eta erakutsi digu elkarlanak fruituak eman ditzakeela”.

Demografia

Datu ofizialek populazioaren beheranzko joera erakusten dute nafar Pirinioetako bailara guztietan. Zenbakiak engainagarriak dira, gainera, solaskideek diotenez. Otsagabian, esaterako, 640 lagun daude zentsuan, baina 400 inguruk ematen du urte osoa bertan.

Ezkortasuna zokoratu

“Guri dagokigu gurearen alde mugitzea”, esan digu Jezabel Orozek, Zaraitzu bailarako postari eta Bizirik Gaude elkarteko kideak. “Borroka egin dugu Iratiko Etxeen aurka, gasbidearen aurka, hezkuntza-sistema duinaren alde... Ez dugu egoera kolpetik aldatuko, baina hemen geratu nahi badugu beharturik gaude bailara guztietako herritarrek elkarlanean aritzera, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkarikoak, baita almadia zonaldeetakoak eta Ipar Euskal Herrikoak ere. Arazoak igualak dira”.

Iritzi berekoa da Gustavo Goiena, Otsagabiako turismo bulego eta interpretazio zentroko teknikaria: “Parean jarri diguten hormatzarra gainditzeko funtsezkoa da bakoitzak bereari soilik begiratzeari laga eta eman beharreko urratsak denon artean adostea”. Bailaretako azpiegitura batzuei darian “megalomania” jarri digu etsenplu bezala: “Ezin gara gurean instalazio handiak eraikitzen hasi albokoek hala egin dutelako, kultur aretoak adibidez, kasu hipotetiko bat aipatzearren. Errua ez da soilik Gobernuarena”.

Biktimismo mezuak alboratu eta etorkizunari itxaropenez begiratu nahi dio Bizirik Gaude elkarteak, Pirinioetan bizi eta lan egiteak merezi duela aldarrikatu, “alarma egoeran” daudela jakitun izanik. Otsagabiatik 10 kilometrorra dagoen Sartze herriko elkartetabernan hartu gaitu Orozek, garai batean eskola izandako etxean. “3-15 urte bitarteko ikasleak biltzen ginen hemen; egoera horretara ez iristea espero dut”, diosku, populazio gainbeheraz mintzo, garai zailagoak ezagutu dituela, duela bospasei urte baino gazte gehiago dagoela, eta horrek akuilu izan behar duela borrokan jarraitzeko.

Gakoetako bat bertakoak eurak kontzientziaztea dela dio. “Seme-alabei etengabe errepikatzen badiegu gogor ikasteko, hirian lana bilatzeko beharrezkoa dela... Edo Iruñean ikasketak amaitu eta hona itzultzen den gazteari ‘Zer demontre ari zara hemen? Nik uste nuen ministro izatera helduko zinela!’ esaten badiogu... Aurkakoa egin behar dugu, poztasuna agertu eta jendea animatu, gurea baloratzeko ikasi eta irakatsi: hurbileko harremanak, ingurumena eta abar”.

“Abeltzain bezala lan egitera datorren gaztea erotzat hartzen dute”, ihardetsi du Goienak. “Lehen agian gehiago, krisiak hiria ere

Emakumeak

Emakume gutxiak dute enplegua zonaldean. “Eta emakumerik ez badago, gizonek alde egiten dute”, esan digu Amparo Viñualesek. “Halaber, Erronkariko 1.000 biztanleen %38 65 urtetik gorakoa da, eta jendeak adin bereko lagunak behar ditu inguruan...”



Amparo Viñuales erizaina Nafarroako Parlamentuan, gutxieneko zerbitzuen egoeraz hizketan. Jaramon gutxi egin zioten parlamentariak. Esquinean, Zaraitzuko postari eta Bizirik Gaude elkarteko kide Jezabel Oroz.

kolpatu du-eta. ‘Utzi ardiak eta hoa Volkswagenera!’, entzuten zenuen maiz”. Viñualesek uste du krisiak bultzatuta gazte gehiagok jo dezakeela landa-eremuetara, politika egokiak garatuz gero bederen: “Kontua da agintariak hiriaren alde egin dutela nabarmen; guri, ezta entzun ere”.

Turismo-ereduari heldu dio Otsagabiako interpretazio zentroko kideak: “Nafarroako Gobernuaren leloa hau da: ‘Hartu ostatu Iruñean; joan egun-pasa Iratira, Bardeetara edo beste lekuren batera, ikusi zein ederrak diren, baina lotara itzuli berriro hona”. Pirinioetako eragileek helburu dute bisitariak gaua bertan igaro dezaten lortzea. “Basozain eta mantentze lanak ordaintzeko apenas dugu dirurik; horregatik hasi gara oiher atarian aparkatzeagatik kobratzen”.

Iruñea patu

Hiriburutik urrun bizi eta lan egiteak sortzen dituen arazoak euren larrian sufritzen dituz-

te Garraldako eskolako irakasle Ainhoa Mendiak eta Mikel Aoizek: “Duela gutxira arte, nekez geratzen zen irakasle bat ikasturte osoa gurean, Iruñean bizi nahi dutelako gehiengutuenek. Zenbait neurri proposatu genituen eta Gobernuak onartu zituen batzuk. Esaterako, hemen lana lortzen duen irakasleak aukera –lehentasuna– du hiru urte bertan emateko. Beste ikastetxe batzuetan ez bezala–ko ziurtasuna dakarkie horrek”.

Nafarroa osoan, derrigorrezko zikloen osteko ikasketak herrian bertan edo hurbileko ikastetxeetan egiteko aukera dago, Pirinioetan izan ezik. 15-16 urteko gazteek Iruñera joan behar dute –Eunateko institutu publikoa da haien zuzeneko erreferentzia–, eta horrek etxekoentzat kostua du. “Agian, gazteak denbora luzeagoz atxikitzea lortuko litzateke ingurura egokitutako ikasketak bultzatuko balira”, esan digu Bizirik Gaude elkarteko kide Jezabel Orozek. “Irunberrin egurrarekin lotutako karrerak baleude, gero sektore



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.
Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



Gustavo Goienak turismo-eredu jasangarria defendatzen du, pertsonak oinarri dituen.

horretan lanean hasi ahal izateko... Apurka-apurka ari dira gauzak sortzen, baina hutsune handiak daude oraindik". Ikasketak amaitzean gazteen %10 besterik ez da geratzen herrian, nekazaritzan edo turismoan lanean; bata gogorra da ordea, eta bigarrenak hilabete batzuetan baino ez du funtzionatzen.

Bestalde, eraikinaren mantentze gastuei (berogailua, ura, argia...) aurre egiteko udalak estu dabiltzala esan digu Orotz-Beteluko alkate ere baden Ainhoa Mendiak, eta kexu da Gobernuak haur kopuruaren araberako laguntzak bideratzen dituelako: "Esaterako, Agoizko zentroan ikasle kopurua hirukoitza da. Bada, gure eraikina berotzea bi bider garestiagoa izanik, jasotzen dugun diru kopurua herena da".

Diskriminazio positiboa, euroetatik harago


Biztanleen araberako laguntzak dira, hain justu, arazo iturrietako bat, izan hezkuntzan zein beste edozein sektoretan. Azken 40-50

Biomasa erregai

LANPOSTU GABEZIARI aurre egiteko enpresa txiki gehiago sortu beharko lirakekeela uste dute solaskideek, jasangarriak izateko Pirinioetako errealitatea aintzat hartu beharko luketela argi izanik. Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzarekin lotutako proiektuak dituzte buruan, baita turismo sektorea ere.

Gustavo Goienaren hitzetan enpresa handiek "parametro ekonomikoetan" funtzionatzen dute. "Irabazirik jaso ezean badoaz, ikusi izan dugun moduan paper-fabrika edo harrobiren batekin. Industria falta baino, industriaren dibertsifikazio eza aipatuko nuke. Badira gauza batzuk gutxi ustiatu direnak. Turismoari dagokionez, esaterako, Irati marka saldu beharra dago, Europako Mendietan egiten duten bezala". Helburuetako bat da parke natural izenda dezaten lortzea, Bertiz, Urbasa-Andia edo Bardeak kasu.

Basogintzaren sektorean lan aukera berriak eskainiko lituzkeen zerbait sortuko dela uste dute, biomasa-rekin lotura izango duena, oihana ustiatzen dutenek zuhaitzak moztu eta egur guztia zuzenean kanpora eramatea ekidingo lukeen proiektua. "Iratin egur asko dago gaixo, eta lekua kentzen diete onik haziko lirakekeen arbolei", dio Orozek. "Egur horren parte bat pellet edo ezpal bihurtu eta biomasarako baliatuko balitz...".



MIGUEL ANGEL GARCIA / FLICKR



Txipiroiak plantxan

Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



Garraaldako irakasle Mikel Aoiz eta Ainhoa Mendiaren hitzetan, 16 urteko gazteak ikasketekin jarraitu eta bizitzera Iruñera joateak kostua du etxekoentzat. Diotenez, gazteen %10 geratzen da herrian, laborantzian edo turismoan lanean.

urteetan biztanle kopurua laurdenera jaitsi bada, laguntzak ere ikaragarri murriztu dira, eta beharrak handitu.

“Dena den, diskriminazio positiboa eskatzen dugunean, diruaz baino, legeak aldatzeaz ari gara sarri, besteren artean, abereak izan edo produktu bat merkaturatzen hasi nahi duen ekintzaile gazteak bidea samurrago izan dezan”, azaldu digu Goienak.

Nafarroako Gobernuak 2006an aurkeztu zuen Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoak itxaropen apur bat piztu zuen orduan, baina hutsean gelditu dela salatu dute solaskideek. “Azpiegituren aldeko apustua egin zuten, eta Pirinioetako Autobidea eraiki”, diosku Garraaldako irakasle Aoizek. “Errepidea han behetik pasatzen da, gu ezta ukitu ere!”.

“Zangoza, Irunberri eta Agoitz guretzat ez dira Pirinioak”, argitu digu Goienak. “Agintariek diotenean ez dakit zenbat euroko inbertsioa egin dutela mendialdean... Errealitate aunitz desberdinak ditugu. Irunberrin 1.400 biztanle dira, Zaraitzu bailaran baino gehiago”.

Patxi Encaje Abaurregainko alkate eta abeltzaina ere mintzatu zaigu estatistiken interpretazio maltzurraz: “Garestiak garela esaten digute, bi Nafarroa sortu nahi ditugula, haiek direnean horretan dabiltzanak: Iruñea eta agian Tuter a batetik, eta gainerako guztia bestetik”. Lau urtean behin berritzen den Landa Garapen Iraunkorrerako Programa aipatu digu berak: “Ehuneko zabalena Nafarroako Kanala egiteko baliatu dute, halako azpiegitarik Erriberan ere nahi ez dutenean!”.

Laborantza jasangarriaren alde

Encajek 32 urte ditu. Duela hamar joan zen Burlatetik mendialdera, bikotekidearekin ber-

Segurtasun pribatua

Populazio galera larria dela esan digu Jezabel Orozek: “Oso izorratuta gaude. Umerik ez da jaiotzen, gazte gutxi dator eta aitona-amonak Iruñeko senideengana doaz.

Despopulazioa arazo larria da; aurki ‘segurata’ jarri beharko dituzte herriak zaintzeko.

Aragoiko Abrazala Tierra kolektiboko kideekin harremanetan gaude, egoerari nola aurre egin jakiteko”.

tan geratzeko intentzioz. Haien alaba iaz Aezkoan jaio ziren bi umeetako bat da.

Kontatu digu 30-40 urteko lauzpabost abeltzain gehiago daudela inguruan, eta berak esnetarako 500 ardi dituela: “Gehiegi dira, baina Nafarroako Gobernuaren laguntzak esplotazio handietara bideratuta daudenez... Ipar Euskal Herrian etxalde txiki jasangarriagoak sustatzen dituzte. Hemen abeltzaintza hiltzorian dago: abelburu mordoa izan behar dira, azpiegitura handiak eraiki, hiltze gatik jartzeko lizentziarik ez daukagu, zuzeneko salmenta mugatzen da... Industria Departamentuko legedia aplikatzen da; arauak berdinak dira Erronkariko Enaquesa bezalako enpresa batentzat zein gaztagile txikiarentzat”.

Halaber, Pirinioez bestaldean desberdin kudeatzen dituzte Europatik datozen dirulaguntzak: “Parte bat erkidegoek manciatzen dute hemen, eta Iparraldean Euskal Herriko Laborantza Ganbarak zuzenean kudeatzen ditu, kontrolpean bada ere. Espekulazio ereduari aurre egiteko aukera handiagoa dute han, arazoak izan badituzten arren”. Etxalde askotan bikote gazteak lanean aritzeak erakusten du abeltzaintza biziago dagoela, Encajeren hitzetan. “Legedia aldatu eta produkzio-salmenta zikloa osatzen utziko baligute, subentzio beharrik ez genuke izango”, esan digu.

Hamabost hilabete barru egingen diren hauteskundeetan jarriak ditu esperantzak Encajek, baina nafar Pirinioetako eragileen artean nagusi den iritzia bere egiten du: Ezer aldatzekotan, bertan bizi nahi dutenek egin beharko dute bultz, elkarlana oinarri. ■



bardoak 2014

nafarroako taldekako bertso ekimena

FINALA

APIRILAREN 12AN,
LESAKAKO FRONTOIAN, 17:00ETAN

LEPATANATUEK 2, TXIPIROIEN ITZULERA
(Baztan)

Oier Amiano
Jon Barberena
Kotte Plaza
Xabier Maia

HARRAPAZANK

(Leitza)

Migel Mari Elozegi "Luze"
Iñigo Ibarra
Joanes Illarregi
Jose Luis Barberia "Zili"

BERTZE MALDIKOAK

(Iruñea)

Ainhoa Aranburu
Aimar Karrika
Oskar Sanz de Acedo



antolatzailea



laguntzailea

argia

informazio osoa eta sarrerak

WWW.BERTSOZALE.COM



«Goi mailan, jokoarekin zerikusirik ez duten gauza gehiegi daude»

“Natural sentitzen dut egiten dudana, eta natural egin sentitzen dudana...”

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

80ko hamarkadan, Berriatuan...

Orduko berritxuarraren prototipoak hiru ezaugarri zituen: zestalaria, athleticzalea eta *golfoa*. Aita mutrikuarra neukalako atera nintzen moldetik. Debako hondartza-futbolearen hasi nintzen jokatzeko eta aitak txikitatik eramanez Atotxara. Hortik datoz nire futbolerako pasioa eta Realzaletasuna. Pentsa, Realak 1987ko kopa irabazi zuenean, finalerako autobusa jarri zuten Mutriikutik. 9 urte baino ez nituen, baina eskolan ondo moldatzen nintzen, joateko tratua eginda neukan aitarekin. Amak, osteratzen, ezezko borobila eman zidan. Nire bizitzan ez dut sekula horrenbeste negar egin. Hamar egun egon nintzen amari hitzik egin gabe. Baina tira, denborarekin urak euren onera itzuli eta herriko joerak aldatu dira. Gure sasoiak ez bezala, orain futbol zelaia dago Berriatuan, haurrak frontoira baino errazago bertaratu dira, eta ez dira denak hain zuri-gorriak.

NORTASUN AGIRIA

Jagoba Arrasate. Berriatuan sortua 1978ko apirilaren 22an. Jokalari bezala Realaren gazte mailetatik Eibar B-ra egin zuen jauzi, eta Lemoa, Beasain, Elgoibar, Amorebieta eta Portugaleterekin 2. B eta 3. mailan jokatu zuen. 2007an jokatzeari utzi eta Berriatua F.T entrenatzen hasi zen, Elgoibarrekin nabarmendu, eta Realak gazteak entrenatzeko fitxatu zuen. 2012-2013 denboraldian Montanier-en laguntzaile izan zen, 2013ko uztaillean taldeko entrenatzaile nagusi izendatu zuten arte.

Jokalari eta entrenatzaile aritu zara Realeko gazte mailetan. Hamabost-hogei urtetan, zenbat aldatu dira Zubietako giroa eta jokalari gazte baten ingurua?

Ni Aranburu eta Barkeroren labealdikoa naiz eta orduan apenas etortzen zen ikuslerik entrenamenduetara, ez zegoen ez ordezkariarik ez ezer. Dena zen naturalagoa, puruagoa, futbola bera eta lagunartea ziren nagusi. Orain, gazte mailetatik hasita, kanpo-faktore askok eragiten diote jokari eta futbolarik bere esentzia galdu du. Neurri batean gurasoen errua da, baina sistema oso batek bultzatzen ditu gurasoak horretara. Ordezkarien, komunikabideen eta jendar-tearen eragina itzela da, eta gurasoek neurritz kanpoko garrantzia ematen diote euren haurrak egiten duenari. Ez da sana. Gurasoak ume koxkorrei zarataka edo entrenatzaileak esandakoaren kontrako agintzen ikusten ditudanean auzo-lotsa sentitzen dut, pena. Baina berriz diot, gurasoak ez dira horretara bakarrik heldu, sistema oso batek ekarri ditu.

Sistema horrek sekulako frustrazioa sortu dezake lehen mailara iristen ez direnengan. Nola egiten zaio horri aurre?

Realaren papera ezinbestekoa da. Guri argi esaten ziguten hogeitik asko jota bi baino ez zirela lehen taldera iritsiko. Hala, Realak ezin ditu bi jokalari horiek esne-mamitan eramanez besteak ahaztu. Denei eman behar die heziketa bat, ikasketak, gerta litekeenari aurre egiteko prestaketa psikologikoa...Gero, jakina, bakoitzaren izaera eta



inguruaren presioa daude. Niri ez zitzaidan kostatu erabakia onartzea. Disgustuarekin batera konturatu nintzen mundua ez zela Zubietan amaitzen eta futbola ere ez. Ikuspegi kontua da dena, batzuek porrota ikusten duten lekuan besteek bidegurutze bat ikusten dute.

Beste bidegurutze bat, handik urte batzuetara, jokatzeari utzi zenionekoa izango zen, ezta?

2. B eta 3. mailan ibili naiz beti, leku batzuetan nahiko soldata onarekin, baina horrek bizimodua ez zidala konponduko jakinda. Magisteritza ikasi nuen, irakasle beharrean ere hasi nintzen, eta behin 28-29 urte bete-ta, kontua ez zen ez nintzela hortik biziko, 2. B-tik gora ez nuela egingo baizik. Orduan erabaki nuen entrenatzaile titulua ateratzea, baina uste dut inkontzienteki beti formatu naizela entrenatzaile izateko. Jokalari nintzela herriko umeekin ibiltzen nintzen, besteengan progresio bat ikusteak asko asetzen nauelako ikasi nuen magisteritza, eta irakasle aritu naizenetan beti saiatu naiz ikasle bakoitzari errendimendurik onena ateratzen, futboleko jokalari bakoitzarena ateratzen ahalegintzen naizen bezalaxe. Pixkanaka ontzen eta heltzen joan den prozesua izan da.

Zer da entrenatzaile on bat?

Dauzkan baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzen diena. Ez da futbolaz asko dakiena bakarrik. Taldea kudeatzen jakin eta jokalaria bakoitzaren larruan jartzea ezinbestekoa da. Zuk asko jakitea ez da nahikoa jokalaria bati zukua ateratzeko. Pozik egon behar du, egoera ulertu, motibatuta sentitu... Egun bakoitza aldarte bat da, pertsona bakoitza mundu bat. Hirugarren mailatik lehen mailarako ezberdintasuna jokalarietan dago entrenatzaileetan baino gehiago. Abiadurak, zehaztasunak eta talentuak askatzen dute korapiloa. Hirugarren mailan entrenatzaile bati eskapatzen zaizkionak, kontrolatu ezin dituenak, askoz gutxiago dira lehen mailan baino. Hala, entrenatzaileak bere esku dagoena lotu behar du, makina mar txan jarri eta olioztatu, baina jokalaria mar katzen du diferentzia. Pentsa, askotan entrenatzaile txar batek kalte gehiago egiten dio talde bati entrenatzaile on batek mesede baino.

Zuk esan duzu, egun bakoitza aldarte bat da eta pertsona bakoitza mundu bat.

Ezin diezu denei gauza bera modu berean esan. Bere larruan sartu eta bere egoera ulertu behar duzu, zure mezura ekarri zure eraba-

kia konprenitu dezan. Jokalaria lehen mailara heldu bada ez da oso ona delako soilik, berekoia eta inkonformista delako ere bada, bestela ezin da iritsi. Oinarri horrekin oso gaitza da jokatzeko ez duena pozik egotea, baina guri dagokigu partaide sentiarazi eta edozertarako puntuan eta prest mantentzea. Badakigu gure erabaki batek bati mesede eta besteari kalte egingo diola, baina kaltetuak ere asko ardura digu. Gure erantzukizuna da denongan jartzea fokua, ez jokatzeko dutenengan soilik. Taktika eta teknika bezain garrantzitsua da psikologia. Jokalariak sentitzeko zuk transmititu behar duzu, eta zuk transmititzeko zuk egon behar duzu motibatuta eta sinetsita. Etengabeko borroka da.

Balio erantsia dauka nagusiki euskaraz bizi den aldagela kudeatzeak?

Taldearen nortasuna gero eta lausoagoa den garaian plus izugarria da, oinarri bat. Zubietako baloreek eta euskarak zerikusi handia dute azken urteetako lorpenekin. Oso balore errota eta irekiak dira, kanpotik datozenak oso ongi barneratzeko modukoak. Horregatik, niretzat oso garrantzitsua da Old Trafford-era joan eta kazetariei euskaraz erantzutea. Ez da detaile hutsa. Euskara gure dohainetako bat da, indartu beharrekoa.

Egungo futboleko komunikabideek duten indarra ere ez da detaile hutsa.

Mundo Deportivo-k egunero sei orrialde eskaintzen dizkio Realari, *El Diario Vasco* ikaragarri saltzen da... Jende batek oso uste eta iritzi sendoak ditu, baina politikan bezala, medioetan irakurtzen dutenaren arabera mugitzen den jende asko dago. Ez dakit medioak entrenatzaile bat botatzera iritsi daitezkeen, baina bai jendea kontra jartzera, eta elur bola aldaipa behera doanean oso zaila da frenatzen. Sentitzen dudana transmititzen saiatzen naiz,

“Zertarako uste duzu direla betiko lau topikoak? Hanka ez sartzeko, esan nahi ez duzuna ez esateko, zure burua babesteko”

Zentzuzkoa iruditzen zaizu prentsan eta jendartearen futbolari ematen zaion lekua?

Prentsaaren negozioaz eta audientzia gain, interesak daude mundu guztia futbolaren inguruan kateatu eta bitartean beste gauza batzuei buruz ez hitz egiteko. Jendeak eskatzen

du albistegia futbolarekin hastea ala beste gai batzuk ez zabaltzeko modua da? Benetako eskaria dago, benetako gosea, ala arreta desbideratzeko komunikabideen trikimailua gara? Kontuak kontu, sistema horrela eraikita dagoenez, esaten dudana guztiak espazioa dauka, eta espazioa daukanez badirudi interesa ere baduela, baina ez da hala!

Herria kontentatzeko ogia eta zirkoa aski zirela zioten erromatarrek. Gure zirkoa futbola da, baina ez al da zirkoa ogirik gabe gelditzen hasi?

Taldearen zorrak eta zorren barkatzeak albiste arruntena bezala ematen zaizkigunez onartutzat dauzkagu, baina horrek ez du esan nahi sekulako injustiziak ez direnik. Bestalde, gogoan dut Bielsaren urte zoragarri hartan, Berriatua ostegunero sekulako parrandak antolatzen zirela, bidaia hona bidaia hara, eta jendea lanik gabe! Hemen gure ahalmenen



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com





AZKEN HITZA

Egunerokoa

“Entrenamendua baino pare bat ordu lehenago iristen naiz Zubietara. Entrenamenduaren azken detaileak lotu, lan-saioa errepasatu, medikuekin hitz egin, zelaia prestatu eta buru-belarri entrenatzen dugu. Ondoren, balorazioa egin, pultsome-troak begiratu, ondorioak atera eta prentsarekikoak egiten saiatzen naiz. Bazkalostean, bideo lana egiten dugu, aurkariei buruzko txostenak lagun, partidak aztertzen ditugu, gure hutsak detektatzen eta zuzentzen saiatzen gara, eta entrenamenduak planifikatzen. Egutero 8 edo 10 ordu pasatzen ditut Zubietan, baina badakizu, gustuko tokian aldaparik ez”.

gainetik bizi izan gara, bai jendartean eta bai futboleant. Begira zer gertatu zaigun aurten guri. Txapelketa berean, astebeteko epean, kobratzen ez zutelako ez jokatzera erabaki zuten Racing-ekoak eta Bartzelonako izar aberatsak izan ditugu aurrez aurre. Ez da onargarria. Oker handi bat dago hor, akats sistemiko bat.

Berdin ikusten da zirkoa kanpotik zein barrutik?

Futbola jarraitzen duen edozeinek daki jokoa bigarren planoan geratu dela. Jokalari batek, adibidez, soldatetik baino diru gehiago jasotzen du irudi eskubideetatik. Bere irudiak bere lanak baino gehiago balio du. Horrek publizitate spotak, jendaurreko agerraldiak eta konpromisoak dakartza, eta jokalaria errendimenduan eragina edukitzeaz gain, izugarri zailtzen du entrenatzailearen lana. Zorionez, guk ez daukagu horrelako arazorik, baina beste talde askotan lehen mintzagaia da. Horregatik diot futbola askoz puruagoa dela beheko mailetan. Hor partida aurretik kafea hartzeko batzen zarenetik partida osteko tragora arte jokoz baino ez da berba egiten. Mailaz gora joan ahala, partida aurretik prentsaurrekoa eman behar duzu, balizko hamaikako bat argitaratu eta partida hasi aurretik larrutzen zaituzte... Goi-mailan, jokoarekin zerikusirik ez duten gauza gehiegi daude. Negozioak gaina hartu dio jokoari. Ikusi besterik ez dago futbol programak zenbat aldatu diren azken hamar urteotan. Orain hamar urte dena zen informazioa, laburpenak, jokaldi onenak...

Orain dena da debatea, saltsa eta kontua, eta laburpena ikusi nahi baduzu gau osoa pasa behar pantaila aurrean. Negozioak balio du, eta negozioari saltzeak ardura dio. Ados egon edo ez, ezin duzu hori guztia existituko ez balitz bezala jokatu. Horregatik, entrenamenduak, jokalaria, taldea eta jokoa dira nire lehentasunak, baina inguruko guztia gure interesen arabera kudeatzen saiatzen naiz. Haizea alde jartzea ere bada nire lanaren parte.

Entrenatzaile guztiek dakizue, ordea, haizea kontra jartzean nork egiten duen lehenbizi hegan.

Kontratua izenpetzen duzun unetik gero eta gertuago daukazu botako zaituzten eguna. Zure lehentasunetan, zure eguneroko lanean, zentratzea beste erremediorik ez duzu. Lana ondo egiteak emaitza onak lortzeko aukerak handitzen ditu eta emaitza onak denbora irabazteko balio dute. Gaur egun oso zaila da talde batean hiru urtetik gora irautea, eta hori onartzeak egunerokotasuna pasio gehiagorekin bizitzea ahalbideratzen du. Garbi daukat hau dela nire momentua, topera bizi nahi dudala, egiten dudanak asetzen nauela. Hau amaitzean zer egingo dudan? Auskalo. Dakidana da zer egin eta nora joan erabaki aurretik etxekoekin baloratuko dudala. Orain Zubietatik hogeita minutura bizi naiz, ia gauero egiten dut lo etxean, eta hala ere alabatxoak beti egon nahi du nirekin, emaztearentzat ez da beti erraza... Oso kontutan hartzen ditudan hutsuneak dira. Futbola izugarri gustatzen zait, futbol munduan ikusten dut nire burua, baina bizitza ez da futbola bakarrik. ■



Autogestioan oinarritzen dugu gure bizimodua

Jexux Agirresarobe Arzallus naiz, usurbildarra, eta nire 44 urteetatik 20 fabrikan pasa ondoren, azken lau urteak nekazari lanetan daramatzat. Nire bizitza autogestionatzen saiatzen naiz.



ORAIN LAU URTE hasi nintzen nire enplegua sortzen. Nekazari ofizioz, lur mutur batean etxerako adina elikagai ateratzen dugu eta oiloek ematen dituzten arrautzetatik ateratzen dugu bizimodua. Ez naiz, baina, betiko baserritar bat, baserri mundutik datorren mutila izanda ere.

Moulinex enpresan egiten nuen lan, eta ez genbiltzan oso ondo. 2006an enpresa beste nagusi baten eskuetara pasa zen eta txartu egin zen giroa. Nekatuta, behar horretan ari-zeko ilusiorik gabe, 2010ean lana uztea erabaki nuen. Hurrengo egunean bertan ekin genion etxeko negozioa antolatzeari, eta Aitziberrek, emazteak, asko lagundu dit horretan. Terreno puska bat bagenuen eta bi urteko langabezia-prestazioa zegokidanez, horixe aprobeztatu nuen gaur daukaguna martxan jartzeko.

Jende askok galdetu zidan ea zertan nenbilen, fabrikan egunero zortzi orduz lanean aritu eta hileroko soldata finko bat poltsikortzea gauza ederra dela eta amets txoro batekin bueltara ari nintzela. Batzuetan pentsatzen genuen, “egia da, ur handiegietan sartu ote gara”, baina niri hori gustatu! Txikitatik izan dut arantza hori. Ume nintzela ondoko baserrikoak esnea partitzera joaten ikusten nituenean arretaz begiratzen nituen eta beti gustatu izan zait etxeko salmentan sortzen den tratua, gertutasuna. Produktore txikiak handiei aurre egiteko baliatu behar dugu harreman hori, gainera. Handiak merkeago egingo ditu gauzak igual, baina hura han dago; eta guk konfiantza eskaintzen dugu.

Badakit gaurko ofizio honetan ez dagoela oporrik, dedikazioa eskatzen duela eta solda-

ta, seguru aski, lehen bezainbestekoa ez dela izango, baina gustatzen zaizun horretan ari-tzea eta eguneroko bizipoza izatea... Aldea dago. Juxtu biziko garelako? Ados. Baina bizi gara, geurea eginez, geure modura antolatuz, eta hori baloratzen dugu guk. Orain ez daukagu handiaren menpe aritu beharrik, autogestionatu egiten dugu gure txikian produzi-tzen duguna, eta gure erara moldatzen dugu. Askok ikasten da, gainera, beharrezkoa dena eta ez dena bereizi eta kontsumitzen. Bi gal-tza pare gutxiagorekin ibiliko garelako? Bale. Baina janaririk ez zaigu sekula falta izan mahaian, eta are gehiago, badakigu zer sar-tzen dugun ahora, jaten dugunaren parte handi bat gure baratze eta oiloetatik lortuta-koa baita.

Hemen ez dago zortzi orduko txanda egin eta alde egiterik, ez eta ostiraletik astelehene-ra arteko deskantsurik ere. Beste modu bate-ra bizitzen erakutsi digu: lotura estua eska-tzen du ofizioak, baina askatasun handia ere ematen du. Geldirik egotea da txarrena, eta garai hauetan irtenbideetako bat izan liteke nekazaritzarena, behintzat etxerako janaria atera-tzeko. Txikitik eta pixkanaka, baina biziz. ■



HIPERAKTIBITATEA

Gehiegi eta oker medikatutako haurrak

2001ean, 6 eta 17 urte arteko 215 haurri diagnostikatu zieten Arreta Gabeziaren Hiperaktibitate Nahasmendua Nafarroan; 2012an, 1.000 haurri. Hiperaktibitatea arinkeriaz diagnostikatzeko joerari gehitu behar diogu modu kezagarrian igo dela pastillak hartzen dituzten haurren kopurua, jakinik botika hauen eraginkortasuna oso zalantzarria dela. Hala diote duela gutxi kaleratutako azterketaren emaitzek.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

GARRANTZITSUA DA BEREIZTEA hiperaktiboa “dena” (arazo neurobiologikoa duelako) eta hiperaktibo “dagoena” (beste arrazoiren batengatik jarrera hiperaktiboa duelako). Joka-bidearen nahasmendua da hiperaktibitatea, umearen jokabide-pautak aztertuz antzeman beharrekoa, eta gaizki ebaluatutako eta gain-diagnostikatutako kasuak ugartu egin dira (arazo neurobiologikoa herri-tarren %2-3k dauka, baina askoz ume gehiagok du nahasmendua diagnostikatu). Gaia *Diagnostiko okerren ondorio kaltegarriak* erreportajearen jorratu genuen (2255. zenbakian) eta berriz ekarri dugu orriotara, datu esanguratsuak argitaratu dituelako Luis Carlos Saiz Nafarroako Farmakoterapia Ikerketarako koordinatzaileak, Foru Erkidegoko farmakoterapeutika buletinean.

Lehenik, pediatria eta haur psikiatrien artean egindako inkesta eta azterketak hartu ditu hiz-

pide Saizek: horien arabera, sintomen ebaluazioa guraso eta irakasleen —eta hauentzat jokatibide “anormala” denaren— interpretazioan oinarritzen da sarri (erreferentzia objektiboak falta dira, neurtu beharreko faktoreak ere ez baitaude argi), eta are gehiago, irizpideen portzentaje handi bat betetzen ez denean ere, nahasmendua diagnostikatzea da joera.

“Botika hartzea lotuta dago emozio adierazpenak urritzearekin, jakin-mina eta espontaneotasuna galtzearekin, eta jarrera pasiboa bultzatzearekin”

Luis Carlos Saiz, *farmazeutikoa*

Epe labur eta luzera pastillek duten eragina

Behin diagnostikoa eginda, farmakologikoki erantzutea izan ohi da konponbidea. Nafarroan, 2000 eta 2012 urteen artean 30 bider gehitu da metilfenidato eta atomoxetinaren kontsumoa haurren artean. Zertarako balio duen batez ere Ritalin

markapean saltzen den metilfenidatoak? Epe laburrean, frogatu denez, umeak gutxiago oztopatzen ditu gainerakoen hizketaldiak, arreta mantentzeko eta kontzentratzeko balio



dio, eta haurraren mugitzeko gaitasuna txikitzen du. “Sozialki onargarriagoa den jokabide berri hau –ohartarazi du Saizek– lotuta dago emozio adierazpenak urritzearekin, jakinmina eta malgutasun kognitiboa gutxitzearekin, harritzeko eta galdetzeko gaitasuna murriztearekin, iniziativa eta espontaneotasuna galtzearekin, eta umore neutroa eta jarrera pasiboa bultzatzearekin”.

Eta epe luzera, metilfenidatoak lortzen al du umeak aurrerapenak egitea akademikoki, sozialki eta familiar-tean? MTA ikerketa hartzen du adibidetzat Saizek, orain arte egin den zehatzena (7 eta 10 urte arteko 579 haurrengan). Lau taldeetan banatu zituzten haurrok: batzuek botikak hartu zituzten, besteek tratamendu psikosoziala jarraitu zuten, hirugarren taldeak tratamendu konbinatua, eta laugarrenak ohiko terapia. Ondoren, agresibitatea, abilitade sozialak, antsietatea, depresioa, gurasoekin harremana, ikasketetako jarduna... moduko aldagaiak neurtu zizkieten. 14 hilabetera, aldagai guztietako puntuazioa hobetu egin zen lau taldeetan, eta batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak txikiak izan ziren. Zortzi urtera, berdinak ziren talde guztietako emaitzak. Hots, botikak hartzeagatik haurrek ez zituzten emaitza hobekak lortu; aldiz, Saizek azpimarratu duenez, farmakoek ondorio kaltegarriak eragin ditzakete, besteak beste, sistema kardiobaskularrean, psikiatrikoan edota endokrinan, eta menpekotasuna sor dezakete.

Gizarte ereduaren arazoa estaltzeko modua

Nork eta nola zehazten du gaixotasuntzat hartzen denaren kontzeptua? Zein neurritan era-



LATERCERA.COM

Nafarroan, 2000 eta 2012 urteen artean 30 bider gehitu da metilfenidatoaren (Ritalin) kontsumoa haurren artean, nahiz eta frogatu den epe luzera haurren egoera ez dela hobea botikak hartzeagatik.

biltzen ditugu farmako psikoaktiboak kulturalki onartzen denaren kontrol soziala errazteko?

Erosoagoa al zaigu fokua pertsonarengan jartzea, familiaren, hezkuntza sistemaren edo gizartearen disfunzio konplexuagoak azalertzeko lituzkeen arazoetan ezartzea baino? Eztabaida mahai gainean jartzen du Luis Carlos Saizek, eta iradokitzen du egungo gizarte ereduaren dinamika ez dela lagungarria haurrari eskatzen diogun gogoeta maila, garapen intelektuala eta heldutasun emozionala lortzeko.

“Ingurumaria honetan, jokabide konplexuen aurrean guraso eta irakasleek maiz gainezka eginda ikusten dute euren burua, hainbat ezaugarriengatik: denbora falta, abilitade zehatzen gabezia, autoritatea ezartzeko ezintasuna, presio lehiakorra... Eta behin umea gaixotzat etiketatu dugunean, norberak izan dezakeen erantzukizunetik aske, farmakoa aukera eroso da, epe laburrean emaitzak dituen eta beste alternatiba batzuk baino ekonomikoagoa. Botika haurraren identitatea indartzera eta beharbada berregitera dator. Dударik gabe zigorrak, kanporatzeak eta familiar-teko gatazkak saihestuko dira, baina horren ordaina da umearen autonomia eta gaitasunak pastillaren mende uzten direla”.

Ondorioa garbi du profesionalak: ebaluazio landuagoak eta sakonagoak egitea, haurraren, senitartekoen eta ikas-komunitatearen inplikazioarekin ikuspegi zabalagotik jorratzea, eta hautu farmakologikoa azken baliabidea izatea. ■



CuadraBus

www.cuadribus.com

© 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

SAGARDOTEGIAK

XIII. mendeko burdinolan XXI.eko kupela

Irungo Meaka auzoan, izen berdinez ezagutzen den errekaaren bazterrean, 1200. urtera salto egin dugu, Ola sagardotegian sartu eta hari pegatuta dagoen Erdi Aroko burdinolaren dimentsioei begira: Arantzateko burdinola. Oraindik belztuta kontserbatzen dituen hiru metro zabalerako kareharrizko hormetatik barrena, presatik burdinolaraino ailegatzen zen ur korrontea sentitu daiteke.

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |

BURDINOLA ZAHARRA geldirik dago, baina ondoan daukan sagardotegiak nolabaiteko bizia eman dio. Eraikuntzagaratik bereizten diren sagardotegiak ez dira bat eta bi. Badaude XV. eta XVI. mendeko baserrietan eraikitako sagardotegiak, upategiak lurpean dauzkaten sagardotegiak, bai eta fatxadagaratik ezagun direnak. Ola sagardotegiak aukera izan du Erdi Aroko burdinola batekin pareta elkarbanatu eta haren aztarnak kontserbatzeko. Sagardotegia 1999an eraiki zuten eta horma oso bat dago burdinola zaharraren harria mantenduz egina, bere kolore beltz eta guzti. Etxea iraganeko olaren kontra dago, beraz, eta Erdi Aroko eraikuntzaren pasadizo eta zirrikitu guztiak bezeroari irekita daude. Kontserbazio lan handia eginda dauka eraiki-

nak, eta sagardoa probatzearekin batera, gerturatzeko direnek gure herriko historiaren parte txiki hori ezagutzeko aukera dute.

Burdinolaren pareta sendoenetako batean dago sagardotegirako sarrera, eta zubitxo bat pasata aurkituko dugu jangela. Sartu aurretik, baina, burdina landuko zuten lekuan belardi txiki bat, jolas-parkea eta frontoia daude, eta inguruan, etxekoek berreskuratu ahal izan duten tresneria ikusgai. Ināki Bengoetxea sagardozaleak onartu digunez, beste hainbat lanabes gordeta dauzka oraindik eta museo txiki bat egiteko asmoa daukate. Olako hormen artetik igarota harrizko arku bat aprobeztatuz burdinolan bertan kupel bat ere badaukate jarrita, XIII. mendea XXI.arekin uztartuz. Mundu berezia sortzen da, duela ehunka urte bertan lanean arituko zirenak irudika ditzakegulako, harrizko bloke horien artean. Tradizioari eta historiari eusteko ahaleginean, sagardotegiaren eta orain 800 urteko olaren arteko harmonia mantenduz, ez dira eraikinean soilik zentratzen. Beren produktu nagusia sagardoa izaki eta etxean Euskal Herriko historiaren horrenbeste mintzatzen direla-eta, koherentzia eman nahi izan diote guztiari, sagardoa bertako fruituarekin eginez. Gaur egun behar izaten duten sagarraren %90 beren sagastietatik eskuratzeko gai dira, eta falta dutena inguruko baserritarrei erosten diete. Hamabost hektarea dauzkate 3.000 sagarrondo beteta.

Garai batean baserri ugartan lez, Olan ere maizter bizi izan ziren urte luzez. Ināki Bengoetxea umetan halaxe bizi izan zen gaur Ola sagardotegia dagoen lekuan bertan, 1936ko gerran minen almagazera izandakoan, eta gerora erosi egin zuten baserria. Beti sagardoa egin dute Bengoetxeatarren etxean, hasieran euren kontsumorako bazen ere. Beraz, tolarearen

Eraikin bereziak

Ola sagardotegiak (telefonoa: 943 62 31 30) Arantzateko burdinola berezitasun duen moduan, eraikuntzan berezitasunen bat duten sagardotegiak dira honakoak:

- Saizar sagardotegia (Usurbil, Gipuzkoa). 943 37 39 95
- Oiharte sagardotegia (Zerain, Gipuzkoa). 943 50 10 13
- Lizeaga sagardotegia (Astigarraga, Gipuzkoa). 943 46 82 90
- Astiazaran sagardotegia (Zubieta, Gipuzkoa). 943 36 12 29
- Zalbide sagardotegia (Abaltzisketa, Gipuzkoa). 943 65 21 76
- Uxarte sagardotegia (Amorebieta-Etxano, Bizkaia). 946 30 88 15



Ola sagardotegiaren aurrealdea, antzina burdinola izandakoan. Ezkerreko irudian, Iñaki Bengoetxea jabea, txotx egiten.

funtzioa ezagun, bezeroari irekitako sagardotegia egitea erabaki zuten, lehengo estetika mantenduz eta Arantzateko burdinolari probetxua ateraz. Jabea arotza da ofizioz, eta bere eskuz eraiki zuen sagardotegia. Ordurako, burdinola ere erosita zeukaten, 1988an, eta nahiz eta hasiera batean Udalak eraikinaren izaera historiko eta publikoa aldarrikatu, etxekoek hartu zuten ola zaharra mantendu eta ezagutarazteko ardura. Hala, sagardotegia egitearekin batera, Arantzate ola zaharberritzeko lanak abiatu zituzten. 200 tona hondakin atera zituztela dio Bengoetxeak, eta hormek urtean behin garbitu eder bat jasotzen dutela kontatu du barrez, karean segituan itsasten baitira landareak eta berehala hazten baitira adaxkak paretetan.

Sagardotegi zerbitzua urtarilaren azken egunetatik maiatzaren bukaerara arte eskaintzen dute Olan, eta uda eta udazkenean erretegi moduan funtzionatzen du, eguneko menu eta guzti. Urte garai horretan bisita gidatuak ere antolatzen dituzte burdinolaren historia eta sagardoaren prozesua ezagutzera emateko.

Ez zen garaiko burdinola bakarra

Arantzate, Ibarrola eta Urbe burdinolak ezagutzen dira Meaka auzoan. Erromatar garai-

300 metro gorago, XVIII. mendeko labeak ikus daitezke oraindik. Pentsa zer-nolako garrantzia izango zuen guneak, tren propioa ezagutu baitzuen bailarak antzina

tik inguru horietan minak egon direla gauza jakina da, eta ondoren sartu ziren frantziarrak, ingelesak, alemaniarrek eta asturiarrak zonaldeko aberastasunaren jabe izan ziren. Arantzate da Meakako hiru burdinoletan mantentzen den bakarra, dorretxe eta guzti. Beste dorretxe baten aztarnak ere badaude, baina hura, Arantzate ez bezala, armarririk

gabe. Bestalde, ez da iraganak utzitako aztarna bakarra: 300 metro gorago, XVIII. mendeko labeak ikus daitezke oraindik. Pentsa zer-nolako garrantzia izango zuen guneak, tren propioa ezagutu baitzuen bailarak antzina.

Arantzateko dorretxearen nagusiak XV-XVI. mendean izendatzen dira artxiboetan: Pedro de Arantzate izena agertzen da paperetan. Irungo Udaletxe inguruan, San Joan plazaren iskinan, beste jauregi bat zuen Pedro de Arantzatek, orain Gaztelumendi taberna dagoen tokian. Aurrerago Pedro de Urdanibia deitura topatzen dugu idatzietan, eta orain golf zelaia den lekuan agertzen da. Armarririk berarekin beste bi errota, jauregi bat eta abar aurkitu dira. Hortaz, etxekoek ez dakite Erdi Aroan zein jauntxoena zen egungo sagardotegia, baina XV-XVI. mendetik aurrerako historia zertxobait argitu ahal izan dute. ■





DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

Suarezen heriotza: trantsizioa birkontatzen

SINESTEZINA –baina egia– Adolfo Suarez-zen heriotzaren ondoren entzun izan duguna. Ustekabean harrapatu ez banau ere, esandako gauza gehienek harritu naute. Ez da sorpresa izan zuriak eta beltzek bat egitea Suarez buruz hausnartzetarakoan, baina bai horren gogoeta kritiko eskasa entzutea. Ez dago zalantzarik: historia ofiziala nagusitu da eta, berarekin, berrirori ere, trantsizioaren eta Monarkia-aren goraipamena.

Nork aukeratu zuen Suarez? Eta zergatik? Historia ofizialak dio erregeak egin zuela, Espainia demokraziarantz bideratu asmoz. Egitateak eta zentzuzko interpretazioak beste zerbait adierazten didate: Espainia, diktaduratik ateratzeko prozesu politiko homologagarria behar zen. Horretarako ez zen goi-mailako politikaririk behar, erdipurdikoa baizik. Erregimenaren muinean aurkitu zuten, Movimiento Nacionaleko –Falangeko– burua zen Suarez. Bere betekizuna argi finkatuta zegoen: erreforma politikoa burutu eta hauteskunde libreak antolatu. Hori dena egin zuen –PCE legalizatu eta guzti– eta, gainera, bide batez, Borbonen dinastia eta Monarkia sendotu eta Eliza Katolikoaren nagusitasuna finkatu zituen. Hau guztia, armadaren eta diktadura berri baten mehatxu pean, noski, dakigun moduan.

Ez zen goi-mailako politikaririk behar, erdipurdikoa baizik. Erregimenaren muinean aurkitu zuten, Movimiento Nacionaleko –Falangeko– burua zen Suarez. Bere betekizuna argi finkatuta zegoen: erreforma politikoa burutu eta hauteskunde libreak antolatu

Estatuaren lurraldetasunari eta nazioei buruz berriz, hauxe: ezin da ukatu Konstituzioak bide berria zabaldu zuela, eta horren ondorioz, Kataluniako eta Euskadiko autonomia estatutuak onartu zirela, gai askotan eskumen zabalak aitortuz, nahiz eta nazio hauen erabateko askatasuna ez zen jaso. Baina hor bukatu zen “dibertsioa”

eta, berehala, kezka eta zalantzak sortzen hasi ziren, hau da, “prozesu demokratikoa” ez ote zen urrunegira joan.

Batzuen ustetan Suarez bere kontura hegan egiten hasi zen. Badirudi bere ahalmenaz jabetu eta “eskatu” zitzaiona baino gehiago egiteko prest egon zela, edota benetan sinetsi zuela egindakoa zuzen zegoela. Baina ez zioten utzi, noski. Nonbait, berak agindu garbia zuen eta hura bete behar zuen, besterik ez. Orduan, dimititzera bultzatu zuten –ez daukat zalantzarik horretaz–. Eta geroztik etorri dena argi dago: atzerapauso nabarmenak hainbat arlotan.

Hasteko, 1981eko otsailaren 23ko Estatu kolpea. Nola gertatu zen ez dugu inoiz zehazki jakingo, baina argi dago handik aurrera gobernatu(ko) zutenak ohartarazi nahi izan zituztela. Ordura arte egondako “erokeriak” ez zirela onartuko eta kito.

Eta horrela izan da, bai. Adibide bat nahikoa: LOAPA onartu zen 1982an, PSOE Espainiako Gobernuaren zegoelarik, UCDrekin adostuta. Lotsagarritzko LOAPA, Konstituzio Auzitegiak, handik urte batera –zer garaia, orain bost urtetik gora behar izaten ditu horrelako ebazpenak emateko– bere muinean Konstituzioaren kontrakoa zela onartu zuen. Eta harrez gero, herritar guztion berdintasuna aitazkiat hartuta, nazioen eta beste lurraldeen eskumenak batu nahi dituzte, edo ia.

Zer esan 1936ko kolpe militarren ondorioz hainbat sufrimendu pairatu duten pertsonen merezi duten egiaz, justiziaz eta ordainaz? Bada, orokorrean, Suarez-zen eta beste alderdien arteko adostasunaz onartu zen Amnistiaren Legearen ondorioz, lurra bota zela sufrimendu horren gainean.

Hau da, oso labur bilduz eta subjektiboagoa ezin izanik, trantsizioaz dudakoa da. Adolfo Suarez ez da ez madarikatua ezta heroia. Baina gaitzetsi behar dut iragan egun hauetan zabaldu diren hainbat irudi, baita alderdi, pertsona eta erantzukizunak zuzitzea –eta ez Suarez-zenak, portzietor– erabili den sekulako manipulazio madarikatua. ■





Dabid Anaut

EUSKARA TEKNIKARIA ♦



Hurkoaren gogoan aztarrika

EUSKALTZALEOK eta euskalgintzan gabiltzanok izan ohi dugun buruhausteetako bat euskararekiko motibazioa izan ohi da. Alegia, erdalduna eta euskalduna motibatu nahi izaten ditugu, bata euskara ikas dezan eta bestea euskaraz ari dadin. Hori, dena den, nolabait teko paradoxa ere izan liteke. Beste batzuen motibazioa elikatu behar dugu. Zergatik, ordea? Zergatik saiatu hurkoak euskara ikasi edo erabiltzeko interesa izan dezan? Ez badu “naturalki” nahi—hizkuntza hautuak sarritan oso naturalak ez diren arren—, ez badu pertsona horrek motibaziorik berez, zer dela-eta elikatu behar diot nik beraren barruko motibazioa, sentimendu bat azken batean? Zergatik saiatu inoren gogoan sartzen, haren lurralde propioa eta intimoa baldin bada?

Ikuspegi “altruista” batetik begiratu genezake kontua, eta hizkuntzaren eta hiztun horren hobe beharrez egiten dugula esan. Euskara ikasita edo euskaraz eginda irabaziren bat izanen luke hiztunak, eta bide batez hizkuntzak, eta hori ikusarazten saiatuko gara, egun ez duen motibazio hori izan dezan.

Ikuspegi “egoista” batetik ere azter genezake. Hizkuntza errealtate indibiduala eta psikologikoa ere badela sinetsita nago, baina hori bezain argia iruditzen zait gertaera zeharo soziala ere badela. Eta neroni izaki soziala izaki, neronek ere behar dut nire ingu-

ruan euskaraz eginen duen jendea, neronek eginen badut. “Neroni” hori norbanakoa edo hizkuntza komunitatea izan liteke. Hau da, euskaraz egiteko motibatuta dagoen jendea behar dut, bestela ez dudalako izanen norekin egin. Nahikoa arrazoi bada hori, ziur asko, gaur gogorik ez duten horiengan gogoia pizten saiatzeko.

Lehendabiziko ikuspegi horretatik euskararen aldeko lanean ari litezke, esate baterako, euskararik ez dakiten euskaltzale erdaldunak. Egon bai baitaude, ez gutxi gainera, kontraesanaren tamainaz egin genezakeen balorazioa gorabehera. Eta euskaldunak ere bai, noski.

Motibazioa lantzeko beharraren ikuspegi berekoa, aldiz, normalean euskaldunarena izanen da, horrexek aterako baitio probetxua, ingurukoak moti-

batzen eta euskarara bultzatzen asmatuz gero behintzat.

Bata izan ala bestea izan, nolanahi ere, euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioa lantzeak ez dauka ez, absurdutik batere, eta are gehiago, ziur asko uste genuena baino ezinbestekoagoa da, osagai ezinbestekoa gure estrategia guztietan, motibazio eskas edo ahul aurreko batekin ez baitiogu behar bezala aurre eginen hizkuntza aniztasunaren panoramatik datorkigun oldeari. ■

Hizkuntza errealtate indibiduala eta psikologikoa ere badela sinetsita nago, baina hori bezain argia iruditzen zait gertaera zeharo soziala ere badela



DANI BLANCO



**Amets
Arzallus**



BERTSOLARIA

Muga baten krakatekoak

LEKEITIO HENDAIA baino iparralderago dago. Krak. Gure herriak hegoan du iparra. Krak. Hegoaldeari tarteka kuriositatea pizten zaio eta hurbiltzen da iparraldera. Ez da ardura gertatzen. Normala zerbaitek krak egitea. Senpere maiatzeko egun bat da. Nerabe frantsesen arraileria espainolena baino arrotzago egiten da. Xiberoa egun bakarreko probintzia da, uztail hondarrekoa, abuztu hatsarrekoa. Ipur masailak minberatzeko bada aski. Jiten da jendea, eta joaten, gutxi ulertu duenaren aurpegiarekin asko gozatu duenaren plantak eginez. Eta sei urtean behin herriko bozak. Logikak

atzemateko akrobazia mental latzak egin behar dira. Pastoralen behintzat ate gaineko panpinak seinatlatzen du nondik aterako diren khirixtiak eta nondik türkak. Herriko bozetan nork antzeman. Ez dut ukatuko eni ere batzuetan ulertezina zaidanik, baina siglek hainbeste itzal ez duten politika modu hau sanoagoa zait etxepean edo balakoian zaborra nola zintzilikatzen duen ikusi eta zein alderditakoa den antzematen diozun pertsonarena baino. Eta hori a(r)dibide bat besterik ez zen. Eni orduan egiten dit krak. ■





Lander Arbelaitz Mitxelena

◆ ARGIAKO KAZETARIA

Askegunetik urtebetera

“GURE ERANTZUNA desobedientzia da. Ez diegu utziko gazteak eramaten, herri honekin posible da. Gora euskal gazteria!”. Hitzok orain urtebete esan ziren Donostiako Boulevardeko kioskotik. Parean, kartzelara eraman nahi zituzten gazteak babestera bildutako jendetza. *Herri barresi* forma hartu zuen elkartasunak.

Gaia aurretik zetorren arren, Segiko kide izan zirela egotzita kartzelara bidali nahi zituzten Donostiako zortzi gazteen kasuak eskemak hautsi zituen. Hedabide nagusiek isilean pasatzeko ahalegina egin bazuten ere, aktualitatearen erdigunean kokatu zen *Aske-Gunea*. Zer faktorek eragin zuten ekimena inflexio puntu izan zedin eskubide zibil eta politikoen aldeko borrokan? Honatx batzuk:

Batetik, garai berrietara egokitutako borroka moldeak. Injustizien aurrean, desobedientzia zibil masiborako deia, bortxarik erabili gabe eustea zen asmoa. Eleak mugimenduak lagunduta, irizpideak zehatz markatu zituzten antolatzaileek. Gainera, elkartasuna adierazteko modu anitzak eman eta eskertu zituzten: janaria eramatea, egitarau kulturala betetzen laguntzea, bideoak atzerrian zabaltzeko itzulpenak egitea, bertan *herri barresia* osatzea...

Bigarrenik, komunikazio estrategia eraginkorra. Boulevardeko ekimena nazioarteko hedabideetan kokatzea lortu zuten bolondresak. Ordura arte herri mugimenduek gutxitan lortu izan duten zabalkundea izan zuen gaiak. Egun, Googlek *Askegunea* bilatuta 101.000 emaitza aurkitzen ditu, hizkuntza askotan.

Hirugarrenik, indar metaketatik eta jarrera positiboetatik eraikitako plantoa izan zen. Gobernuaren immobilismoaren aurrean zerbait

egin beharra sentitzen zuten, herri-tarrekin konektatu, eta ordura arte halako gaiak urrun sentitu zituen jende bat erakartzea lortu zuen. Madrili desafio egin zioten gazteek babesa eskatu eta jaso zuten. Egunez egun, talde lana ahuldu ordez hura handitzen asmatu zuten.

Hala, bertan zeudenek ahaztutako ez duten apirilaren 19ko goizaldean amaitu zen epaiketa politikoen aurkako borrokaren kapitulu gazi-gozoa. Jaurlaritzak 300 ertzain bidali zituen Legebiltzarra berak ere arbuia izan duen Espainiako Auzitegi Nazionalak ebatzitako epaia betetzera. Hainbat ordu eta hamaika kolperen ondoren, “auziperatuak maite zaituztegu” oihu artean eraman zituzten espetxera.

Ukaezina da ordea, puxika laranja sinbolo hartuta indartzen doan *herri barresia* geroz eta zailago jartzen dituela atxiloteta politikokoak. Hauek baldintzatzeraz ere iritsi da: operazioaren tempoak, dimentsioak, kosteak eta oihartzuna. Gogoratu ondoren zer gertatu zen Lander Fernandezekin Erroman, Urtza Alkortaekin Ondarroan eta Luis Goñirekin Iruñean.

Oraindik 200 pertsona daude arrazoi politikoak medio kartzelara joateko arriskuan. Zaila da epaiketa hauekin amaitzea, gatazka eskematik mugitu nahi ez duen Gobernuarentzat bazka baitira. Desobedientzia baino bide sinergiarriagorik ez du inork mahai gainean jarri, ordea. Kolektiboki planteatuta indarra du, hori eta gehiago lortzeko. Herri gisa eragitea, horra gako nagusia. Bitartean, Donostia, Ondarroa eta Iruñeko argazkiak historia liburuetarako geratu dira. Ikusiko dugu datozenekin zer gertatuko den. ■



BERTSO BERRIAK

Gurutze Gorria



XDZ

Julio Soto

◆

Doinua: Bogart eta Bilintx.

Enrique Maia, gaztelaniaz mintzatzen den poliglota, guztiontzako agintzen duen UPNren maskota.

Lehenko urteko Sanferminetan txupina bota, ez bota.

Une gogorak pasa zituen inpotentziak itota.

Gizarajoa ordutik dago ikurriñitisak jota.

Sendagileak agindu zion:

“Hator, jar hadi biluzi.

Honek ez zeukak itxura onik, gaitzak hartu hau itsusi.

Botikak: Cope pixkat goizero, 13TV nagusi.

Diario de Navarra leitu

—ez, ez! *El Mundo* ez utzi—

a! Ta ahal baduk ez euskaldunik begien bistan ikusi”.

Tratamenduan oraindik eta urtemuga etorria..

Azken botika hartu dezazun tenorea dator ia...

Bilduren txanda zenean, deitu duzu Gurutze Gorria

Baina pasako da uztailleko egutegiko orria

eta segiko dugu izaten zure gurutze gorria. ■



Gauzak bestela konta daitezkeelako

Lau lagun, hedabideetan bide luzea egin duten lau izen, aurkituko dituzu argazki agentzia honen atzean: Josu Trueba Leiva, Andoni Lubaki, Gari Garaialde eta Ander Gillenea. Azken biak eseri zitzaizkigun alboan, abiatu berri duten ekimenaren nondik norakoak azaltzeko.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

Bostok, aizue. Nik dakidala, lau zarete.

Gari Garaialde. Bai, eta bi besterik ez ginen izen hori ipintzea erabaki genuenean. Berez, lanik gabe gelditu nintzen egunean hasi zen historia hau. Krisia dela eta, murrizketak izan ziren Argazki Pressen eta hainbat lagun kalean gelditu ginen. Lur jota gelditu nintzen, baina, kasualitatea, biharamunean Andoni Lubakik deitu zidan, arrunt emozionatuta, Libian egin zuen erreportajea Japoniako *News Week* aldizkarian sartu zutelako.

Berriak izugarri poztu ninduela esan nion, baina ez nengoela euforiatarako. Elkarrekin tragoxka hartzeko lotu ginen eta han sortu zen zerbait kolektiboa egiteko proposamena. Gero Ander Gillenea eta Josu Trueba Leivarekin bildu ginen.

Ander Gillenea. Egin beharrekoa baina egiteke uzten den gai horietako bat izan da beti, hemen taldean zerbait sortzea.

Eta izena?

Gari G. Andoni Lubakik bota zuen izen hori. Hemengoak ahantzi gabe, kanpora begira egin nahi genuen lan, eta euskarazko izena behar genuen, eramangarria, estetiko, ingelesezkoa eman zezakeena, edo bederen, zaila izango ez zena. Bazen Italian agentzia bat, Grazia Neri izenekoa, eta horri erreparatzen nion nik, hitz-jokoa nahi nuen, iradokorra. Stok amaierak bilteria gogorarazten du, edo hiriarekin lotu liteke, Bladivostok... Gainera bere bokal guztiak o dira, photo-n bezala.

Kooperatiba moduan egituratuta zaudete. Nola antolatzen duzue lana?

Ander G. Horretan ari gara oraindik. Urtebete ere ez da ideia sortu zela, eta ekimena martxan jarri genuenerako iraila zen. Goiz da balorazioetarako.

Gari G. Aski argi genuen denok, sortuko genuenak denona behar zuela izan, denok aginduko genuela. Gogoan dut 90eko hamarkadan argazki kolektiboak jarri zirela modan Frantzian, ez dakit nola antolatzen ziren, baina oso ondo funtzionatzen zuten. Dena

den, zerbait kolektiboa behar eta kooperatiba da gogora etortzen den lehena. Besterik bilatu gabe, heldu egin genion eredu horri.

Ander G. Taldeari dagozkion lanak, webgunea kudeatzea edo sare sozialetan jardutea dela, argazkien edizioa edo promozioa eta salmenta dela, hasieratik banatu genituen. Dena den, etengabeko birmoldaketan

gaude, ez baitakizu ongi non sartzen zaren, eta badirelako bestalde, esker txarreko lanak ere, esate baterako, paper kontuak-eta.

Nola hautatzen eta banatzen dituzue gaiak?

Ander G. Nork bere gaiei heltzen die.

Gari G. Hori ere markatu nahi izan genuen hasieratik. Talde lana bai, baina nork bere independentziari eutsita. Ez dugu zertan dena elkarrekin egin, baina egin ostean, Bostok bezala, taldean erabakitzen dugu nola salduko diren lanak. Zenbait gairi kolektiboki heltzea zaila da, eta koordinazioa ere ez da erraza izaten.

Prentsaurreko eta gainerakoetara ez zarete joaten. Nola erabakitzen duzue kolektiboki non egon behar duzuen?

“Egin beharrekoa baina egiteke uzten den gai horietako bat izan da hemen beti, taldean zerbait sortzea argazkigintzan”

Ander Gillenea



Gari G. Argi genuen prentsaurrekoak ez zirela gure esparrua izango. Batetik, ezin dugulako Argazki Pressekin lehiatu, ezta EFerekin edo beste medioekin ere. Bestelakoetara jotzen dugu, beraz. Beti amestu dugu hortik kanpo bazela zer kontaturik, gaiei modu pausatuagoan heltzea zela gure gogoia. Eguneroko argazkiaren salmenta oso zaila da, zer esanik ez, kanporako ere Reuters, France Press edo AP dituzunean. Hor ere jardungo dugu, baina beste gauza batzuk ere beharko ditugu.

Autore lana da zuena?

Ander G. Beharbada ez da oso erreal gure lana horrela planteatzea, edo behintzat, hortik bizitza. Emango balu, nahiko genuke, baina ez dugu egun batetik bestera lortuko.

Zein da bakoitzaren esparrua?

Ander G. Printzipioz, erreportaje sozialak interesatzen zaizkit, baina ez nago horretara itxita. Txetxeniarrei buruzko erreportajerik ez nuke egingo, adibidez. Nire grina ez da guda. Errazago, bakardadea bezalako gaiei helduko nieke, edo ahanzturari.

Gari G. Niri, lehen planoan ez dauden gauza horiek interesatzen zaizkit. Ander, Josu eta hirurok pareko gabilta kasuotan, nik ere ez

Bostok Photoko lau kideak. Ezkerretik eskuinera: Gari Garaialde, Andoni Lubaki, Ander Gillenea eta Josu Trueva Leiva.

“Beti amestu dugu prentsaurrekoetatik kanpo bazela zer kontaturik, gaiei modu pausatuagoan heltzea zela gure gakoia”

Gari Garaialde

dut gerrarako grinarik. Horretan Andoni Lubaki dugu espezialista.

Baina gerraren atzean dagoena interesatzen zait. Argazki Pressen lanean arin nintzen Tunisiako iraultza piztu zenean. Handik Egiptora pasatu zenean, gogoan dut *Berriako* kazetari bati esan niola, goazen orain Tunisiara, gertatutakoak zer arrasto utzi duen jarraitzera, hauxe da momentua.

Hurbileko gauza askok pizten didate jakinmina, baita gatazka politikoak ere. Azken finean herri honetan mugimendu nagusia hor dago, eta horrek gauza asko ditu sakontzeko eta beste modu batera esplikatzeko. Esate baterako, kartzela barruak, erbesteratuak, eguneroko prentsan agertzen diren horiek, baina beste modu batera kontatuta.

Bestelako lanek eguneroko babarrunak eltzetik ateratzeko lain emanez gero, noizbehinka gustuko lanei heltzeko aukera izatea, horrek ematen dit itxaropena. Dirurik nekez emango dizutelako, baina bai gogobetea, lan txukuna egiteko parada...

Argazkilaritza bizi daiteke?

Gari G. Zaila dela argi dago, eta gainera gauzak okertu egin dira, baina bada hortik bizi denik, Anderrek 15 urte daramatza horrela.

Yaritza Paumier Sanz nekazaritza teknikaria, azukre kainabera aldatuko duten lursail bat lantzen. Guantanamo (Kuba), 2010eko azaroaren 24an. Historiako borrokarik garrantzitsuenetako baten liderrak dira Kubako emakumeak: Elikadura-subiranotasuna. (Josu Trueba Leiva / BostokPhoto)



Ander G. Bai, ateratzen da bizi-tzeko lain. Urtetan bizi kalitate handia izan dut, denbora izan dudalako, besteak beste, familia-rekin egoteko. Argazkigintza, dena den, arlo zabala da.

Gari G. Nerori ere horretatik bizi izan naiz Argazki Pressekoa bukatu zitzaidan arte. Gipuzkoan ez da jende askorik izango, 30 bat lagun ezagutzen ditut prentsarako argazkilaritzatik bizi direnak. Nola bizi diren? Batzuk hobeto, eta besteak okerrago. Kontratuplean apenas dago argazkilaririk, mediei ez zaielako argazkiliarekiko loturarik interesatzen, gehienak kolaboratzaileak dira. Nolanahi ere, batzuek diru asko irabazten dute.

Argazkilari izatea zer da?

Gari G. Bizio bat.

Ander G. Bizioa, eta aldi berean lanbidea. Hortan zorte onekoak gara, gustuko lana dugu eta.

Gaur egun, telefonoan ere argazki-kamara dugulako, eta baliabide teknologikoak horretara ere bideratu direlako, nornahi da argazkilari. Nola eman balioa zuen lanari?

Ander G. Kalitatea da giltza. Argazki onak egitea.

Gari G. Lehen, momentuko argazkiak eman zezakeen dirua, beste inork ez zuelako egiten. Gaur, sakeleko telefonoa atera eta edonork egin ditzake, baina ez dira beti egiten. Kasuotan beste zerbait bilatzen ahal duzu. Hauxe da gauzak beste modu batera egiteko momentua. Medioen apustua falta da ordea.

Eguneko argazkia eta argazki landuagoa, hainbat hilabetez jorratutako lanetik hautatu duzun argazkia, berdin ordaintzen badira, hori ez doa inora. Elkarriketa luzeak egiten direnean, adibidez. Ezin duzu egun osoa pertsona batekin pasa, gero argazkia 10-15 euro pagatuko bada.



Zubietako joaldunak Iturengo bidean, 2014ko urtarrilaren 27an. (Ander Gillenea / BostokPhoto).

Ander G. Baina beti bada norbait baldintza horiek onartuko dituen.

Gari G. Geure artean kexu agertzen gara sarri, baina eguneroko ohitura txarrak eta ajeak ere hor daude: tokira iritsi, kliskatu eta ospa egitea, esate baterako.

Ander G. Urte luzetan, jendeak ez du bere burua zaindu. Freelance hasi nintzenetik lan ugariri eman diot ezezkia, diruz eskas ibilita ere, baldintza kaxkarrak zirelako. Beste zenbaiteskaintako baldintzetan hartzen zuten lana, gaizki eta zabar pagatzen zitzaaien eta haiek ere halamoduz erantzuten zuten, argaz-

• ERDIKO KAIERA

kia baloratzen dela esaten da, baina ez nago ados, ez pape-rean, ezta interneten ere. Inter-neten jendeak edozer irensten du. Eztabaida luzeak izan ditut hori dela eta. Esate baterako, Donostiako olatuak zirela eta, zenbait mediok galeriak sortu zituzten, jendeak bidaltzen zuen guztia sartzeko. Nire ustez, askoz hobea da hamar on sartzea, inongo baherik pasatu ez duten ehun baino, mozko-rraldi horretan 50era nekez iri-tsiko zarelako. Jendearen irau-pena da gakoa interneten, orri bakoitzean zenbat denbora pasatzen duen, kobratu ahal izateko, baina irautea beste modu batera ere landu daiteke.

Papera dela eta, teoriko batek dagoeneko aspaldi esan zuzenez, egunkarietan biharamunekoa dela sumatu behar da. Eragoz-pena da bertako langileentzat, oraindik ez baitakigu hori nola egiten den, baina nabarmena izan behar du

“Bestelako lanek babarrunak eltzetik ateratzeko lain emanez gero, noizbehinka gustukoei heltzeko aukera izatea, horrek ematen dit itxaropena. Dirua nekez ematen dute, baina bai gogobetea”

Gari Garaialde

hurrengo egunean ari zarela, ezin dira gauzak kontatu sarean egunean bertan egin den bezala.

Ander G. Krisiak ez du balorazioa aldatu. Lehen bazen dirua irudia gehixeago zaintzeko, baina ez zen inor jar-tzen edizio lanetan, ez zen aukeraketa ere fundamentuz egiten beti.

Gari G. Kalitatea ematen duzunean, ez zaitu horrek salbatuko, baina sumatu egiten da, eta jendeak aldeko jarrera erakusten du. Bestalde, paperean argazki bakarra sartzeko tokia bes-terik ez baduzu, ongi, bakarra jarri, baina erakutsi gainerakoak interneten. Horretarako, webgu-nea egokitu behar duzu. Jarrera falta da. ■



Sadr Cityko hilerri juduan, haur musulman bat jolasean, hobien gainean jauzika. Auzune xiiaren erdian dago hilerria, behin eta berriz suntsitu dute. 2012, Bagdad, Irak. (Andoni Lubaki / BostokPhoto)

Parot doktrina indargabetu ondoren, senide eta lagunak Martuteneko kartzelaren kanpoaldean, Jose Angel Biguri noiz kaleratuko zain. biharamuna arte ez zuten askatu. Donostian, 2013ko azaroaren 26an. (Gari Garaialde / BostokPhoto).

kiak zaindu gabe. Alderantziz egin behar dela ikasi dut nik: kalitatea eman eta gero eskatu.

Gari G. Kalitatea eman, hori beti. Lana hartu behar duzu gauza asko baloratu eta gero, baina hartu baduzu, lana ondo egin.

Nola ikusten dituzue hedabideak?

Gari G. Ez dago giro. Hor da krisia, ekono-mikoa eta hedabideena, paperarena... Argaz-

Shin Chan bezalako en aitzindariak 150 urte bete dituzte

Wilhelm Busch margolari, poeta eta karikaturagile alemaniarra 1864. urtean sortua, liburu ilustratu hau komikiaren aitzindariatzat jotzen da, bereziki AEBetan. Bertsoz, ironiaz eta batik bat umore beltzez, haur bihurri lotsagabeen sagari eman zion hasiera.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

90EKO HAMARKADAN ume koskor ziren batzuek gogoan izango dituzte beharbada mutiko entzutetsu hauen ibilerak, Pamiela argitaldaria euskarara ekarri baitzituen Pello Zabaleta Kortaberriaren eskutik. Bihurriak baino gehiago, gaizto amorratu eta ezin lotsagabeagoak ziren Max eta Moritz, artean onik ez zutenak. Bart Simpson, Daniel Bihurria, Pipi Langstrump edo Shin Chan bera ere oso atzean utziko lituzkete, konparazio batera. Hala-koxea izan zuten akabera ere, gaurko haur literaturan ohikoa denaren oso bestelakoa. Alegia, tragikoa —errotak ehota hil ziren— eta etsen-pluzkoa. Haien adar-jotzeak jasan behar izan zituztenek pozarren hartu zuten berria, eta eskerrak eman zizkieten Jainkoari, “barra-bas horien okerrak” amaitu zirelako.

Baina haurrentzako liburu ilustratuen artean sailkatu izanagatik ere, liburu politikoa dugu *Max eta Moritz*. XIX. mendeko 60ko hamarkadan, Alemaniako nekazari txiroek saldoka emigratu zuten AEBetara. Askok, sorterrira ez ezik, seme-alabak ere utzi omen zituzten atzean, eta gaztetxo hezur-hutsez josi omen ziren kaleak. Ahal zutena ostu eta ahora eramanez bizirauten omen zuten, Maxek eta Moritzek bezalatsu. Horietarik askok, hamarkadak emango zituzten giltzapean, eta beste zenbait heriotza zigorra ezarriko zitzaizkien, berriz okerre-tan harrapatuz gero. Eva Weissweiler biografoak dioenez, garai hartako hel-duek sortutako bizi-baldintza negargarriak



salatzea da, hain zuzen, egileak umorez eman nahi digun irakaspena: “izan ere, ba al dago alderik presondegian edo errotak ehota hiltzearen artean?”.

Wilhelm Busch (1832-1908) margolari, poeta eta karikaturagileak sortu zituen pertsonaiok, 1864 urtean. Lan honen berri izan zuen lehen editoreak ez zion, antza, balio handirik aitortu, eta urtebete eman zuten tiraderan, harik eta beste editore batengana jo —Kaspar Braun—, hura bere alde jarri, eta liburu argitaratu zion arte. Urte gutxitan zabaldu zen haren sona ona nazioartera.

Frantziar eta belgikar tradizioko komikiaren aitasuna R. Töpffer suitzar satiriko ilunari aitortzen zaion era berean, komiki estatubatuarra, abiapuntua egunkarietako tira komikoetan izan zuen hark berak, pizgarri izatea zor dio Max eta Moritzen sortzaileari.

1897an, *New York Journal* egunkariaren jabe William Randolphek *Max eta Moritz* antzeko banda komikoa asma zezan agindu zion Rudolph Dirk marrazkilariari. Zentzurik estuenetik ulertu zuen enkargua Dirk jaunak, eta halaxe jaio ziren *The Katzenjammer Kids* edo Hans eta Fritz anaia biki bihurriak, Max eta Moritzen plagio aitortuak. Wilhelm Busch bizi zen artean, baina ezin izango zukeen lotsagabeki kopia izanaren ordainik eskatu, nahita ere, Max eta

Moritzen eskubide guztiak Kaspar Braun editoreak hartu baitzuten beretzat. ■



Euskal Herriak Palestinaz mintzo



BILADI HADI blog berria

www.argia.com/blogak/biladi-hadi

“BILADI HADI. Hamaika begirada Palestinari Euskal Herriak”

argazki liburu eta musika CDaren abesti, argazki eta testu berriak astelehen, asteazken eta ostiraletan

Musikariak, kazetariak, argazkilariak,
bertsolariak, zinemagileak, ikasleak, pailazoak,
herri mugimenduko kideak...





Helduen Literatura

Alkasoroko benta
Mikel Taberna
Susa, 2013

Ikusi eta ikasi

POESIAN ETA IPUINGINTZAN aritzeagatik ezaguna dugu Mikel Taberna. Orain bere lehenbiziko eleberriarekin heldu da, *Alkasoroko benta*, 2013an Susa argitaraturik.

Hamar kapitulutan istorio laburrak kontatzen dira, Bera eta Lesaka artean kokatzen den Alkasoroko biztanleen egunerokoan oinarrituak, eta idazleak duen ipuinerako joera kontuan izanda, independenteki irakur daitezkeenak. Halaxe aitortu baitzuen Tabernak EiTBko arratsaldeko saioan: “bizi puxkak” baina “Euskal Herriko eguneroko ogia” aldi berean. Hortaz, atal bakoitza momentu konkretuetako oroitzapenei badagozkie ere, denak elkartzuz garai zehatz bateko puzzlea osatzen dute.

Eleberria bikoiztasun horretan gorpuztuz joanen da hasieratik amaieraraino. Martin Irazoki eleberraren pertsonaia eta kontalaria denaren istorioa idazten duen bitartean, 50-70 hamarkadetakoa gertakariak berridazten ditu. Sortzearen prozesuarekin batera iragana desegin nahiko balu bezala. Aldatu, berregin. Baina Historia aldagaitza da, eta Martin kondenatua izango da lehenbiziko kapitulutik beretik.

Eleberria, eltzetzu batek –halaxe esaten omen diote eskualde hartan guardia zibilari–, Bordatxo izeneko kontrabandista bat hiltzen duela abiatzen da, eta 1976ko Bordatxo diskotekan guardia zibil batek tiroz hildako gazteen gertaera tragikoarekin amaituko da. Berridazteak esperantza izpi bat pizteko balio du, gauzak bestela gerta ote zitezkeen pentsatzeko, baina, batez ere, berriz gerta dadin eragozteko.

Zerbaiterako balio izan al du? Gero esango digute Historia ziklikoa dela, burua itzuli gabe aurrera egin behar dugula eta, oraindik okerrago, memoria historikoaren aurkako komentarioak entzuten ditugu nonahi. Nola ez gara izango etengabe harri berdinarekin estropezu egiten duen izaki bakarra?

Halako burutazioak eragin dizkit Tabernaren eleberrak. Bestela, hori guztia alde batera utzita, nik esango nuke gazteentzako literatura dela. Mikel eta bere lagunak istorioari ondo deritzot 18-23 urte bitarteko gazteentzat –gogora ekarri dit eskolan Jon Arretxeren *Ostiralak* irakurtzeko agindu zigutenean, Tabernarena behintzat kalitate handiagokoa da–, uste baitut hura izan daitekeela “garaia” pertsonaia hauek guztiek esperimentatzen dutenarekin arratsalde entretenigarri bat pasatzeko. Hala ere, 50-70 hamarkadaren gaineko errepaso hau publiko guztientzat da gomendagarria, batzuentzat oroigarri eta denentzat ikaspen gisa. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



Muin filosofikoak bi lerrotan

“INOR EZ DA aforismogile bere herrian”, dio ironiaz Catalina Ilinescu Gheorghiuk liburuaren atzealdean. Generoko pieza gogoangarria paratzea baino, kexua agertu nahi digu. Valeriu Butulescuri, antzerkirako egin duen lan eskerga ondo balioetsi baitzaio bere herrialdean, Errumanian, ez ordea, aforismoaren genero literarioari egindako ekarpena. Eta Butulescu, aforismogile garaikideen artean behintzat, autorerik itzuliena da munduan.

Hareazko oasiak.
(Aforismoak)
Valeriu Butulescu

Itzulpena:
Hasier Agirre.
Erroteta, 2013

**HAREAZKO
OASIAK**

Aforismoak

Valeriu Butulescu

Komunismo garaian, artean ekin zion Butulescuk aforismoak idazteari, Ceaucescu agintean zela, eta 1985ean plazartu zuen lehen bilduma, esku artean dugun *Hareazko oasiak*, hain zuzen.

Bere lanak ikertu dituztenek diote Butulescuk denek iritziaren aurka doan zerbait balitz bezala aurkeztu digula maiz aforismoa; lehen begiratuan onartezina iruditu eta apurka benetako bilakatzen dela. Adibidez: *Urtero igarotzen dugu, obarkabea, gure heriotzaren eguna.* Edo: *Argiaren abiadak, azkarrena dela ere, inoiz ez du gaindituko iluntasunarena.*

Badiote, halaber, Butulescuren arrakasta ulertzeko aforismoaren ezaugarri nagusia hartu behar dela gogoan: generoa gogoko duen irakurlearen pazientzia askoz ere txikiagoa dela beste edozein generotakoa baino. Eta Butulescuk, liburua hasi eta buka, ondo harrapatzen ditu denak amuan. Horra astindua eman didaten bi adibide: *Sinesten dut eboluzioan.* *Nire bilotzaren beldarra naiz.* Bigarrena: *Belaunikatzen bazara, egonkortasuna handiagoa da.*



Garbine Ubeda
Goikoetxea

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.
Zuzendaria: Michal Nesterowicz.
Bakarlaria: Lukás Vondráček (pianoa).
Egitaraua: Beethoven, Wagner eta Strauss-en obrak.
Lekua: Gasteizko Principal Antzokia.
Data: Martxoaren 28a.

Lukás Vondráček piano jotzailea.



Gazte indarra

INDARRA ETA PASIOA izan litezke Euskadiko Orkestrak emandako azken abonu-kontzertuaren laburpena egiten duten bi hitzak. Egitaraua, taxuzkoa, goitik behera; eta interpreteak, gaztetasunak ematen duen ausardiaz ukituak.

Hasiera batean aurreikusita zegoen Arcadi Volodos piano jotzaile errusiarra ezin izan zen etorri, osasun arazoak zirela medio, eta haren ordeztu, Lukás Vondráček txekiarra aritu zen bakarlari gisa, Beethovenen piano eta orkestrarako, op. 37, 3. kontzertua, detailez josia, eginez. Nabarmenena, pianista gazte honen interpretazioan –28 urte ditu–, soinu-delikadeziaren bilaketa izan zen. Begi bistan zegoen Vondráčeken kezka nagusia soinuaren biribiltasuna zela. Eta honek alde onak –batez ere– eta txarrak ditu. Bertuteen artean aipa dezakegu bertsio erabat kontrolatua egin zuela, inprobisaziorik gabea, pultsazio bakoitza ondo pentsatua, orijinala, nortasuna duena, dudarik gabe. Baina, horren truke, freskotasun pittin bat falta zen, momentuaren sumaldia agian faltan sumatu genuen. Halere, pianista izugarri baten aurrean egon ginen, zoragarria. Eskupeko gisa

eman zuen obra, Josef Suk txekiarren *Love song*, lengoaia pianistiko errefinatuaren adibidea izan zen, eta Vondráčeken bertsioa, bikaina.

Benetako indarra saioaren bigarren zatian sumatu genuen. Wagner-en Tristan eta Isoldaren *Maitasuneko preludea eta heriotza* obertura zoragarrian laburbildu egiten da musikalki operan garatzen den istorio dramatiko, non maitasuna eta heriotza elkarrekin doazen. Michal Nesterowicz zuzendari poloniarrek bizi egin zuen interpretazioa eta transmititu egin zien pasio hori musikariei, bertsio asaldatua eginez.

Eta, pasioan murgildu baginen Wagner-ekin, giro berdintsuan jarraitu genuen gero, nahiz eta maitasunaren beste alde batera eraman egitarauak. Strauss-en *Don Juan op. 20* poema sinfonikoa, hain ondo deskribatzen dituen Don Juan pertsonaiaren abentura galanteak, fresko eta sutua iritsi zitzaigun. Horrez gain, Alexandre Da Costa biolin jotzaile portugaldar gaztearen soloak, kontzertino gisa, disfrutagarriak izan ziren. ■

Montserrat Auzmendi



Benito Lertxundi Kilometroen alde

AURTENGO Kilometroak Orion izango dela eta, herriko ikonarik handienetakoa heldu diote antolatzaileek, ikastolen festa hauspotzen hasteko. Apal mintzatu zaigu Benito Lertxundi, apirilaren 12ko emanaldiak zer berezitasun izango duen galdegin diogunean: “Ezer handirik ez, nire herrian izango dela, eta nire herriko jendearekin”.

Azken diskoak osatuko du nagusiki emanaldiko errepertorioa, eta lehengo abestiak ere tartekatuko dira, ezagunagoak, erroak utzi dituztenak. Gauzatxo bat, hala ere, estreinatuko omen du Orion, “beste kontzertuetan entzun ez dena,

eranskintxo bat, baina ez herriari edo testuinguruari lotua”.

Aldiz, bestelako grina erakutsi digu kantariak, Kilometroak hizpide hartuta: “Ekitaldiek betidanik izan dute garrantzia. Ikastolak, hain zuzen, herri honen lorpenik iraultzaileena dira. Horren lekuko izan gara azken mende erdi honetan. Ez dakit gaur zenbateraino baloratzen den, baina gure erronka guztien ispilu dira. Sinbolismoagatik bakarrik, ezer ez ginateke izango, hori galtzen utziko bagenu”. ■



G.U.G.



Apirilaren 12an izango da Benito Lertxundik Kilometroen alde eskainiko duen kontzertua. Orioko Karela kiroldegian, 22:00etan.

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Miren Epalza Ronkalen esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


6	8			1		2	5
3			2	9		6	1
	4		3	6	9		
			5		2	9	
2						4	
6	5			8			
		4	8	2		3	
8	3		4	7			2
2	9		6			7	4

Zaila

8	9					2	4
						7	6
	5		4	2			8
		5			7		
		8	5		1	7	
			3			4	
9				5	4		1
5	4						
1	2					6	4

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.-Letra. 2.-Sekula. 3.-Zauri batean zornea sortu. 4.-Partaideia, laguna. 5.-Beldurrak.

Kike Amonarrizen umorea

Bikote historikoa



Josune Amagoiarekin ari da hizketan bikotekidearekin dituen arazoez:

- Izan ere, Karmenekin haserretzen naizen bakoitzean historiko jartzen da!
- Histeriko esan nahiko zenuen!
- Ez, ez! Historiko! Azken hilabetea ondo egin ez dudana



guztiz oroitzen da; egindakoaz, lekuaz, egunaz eta orduaz!

Soluzioak

Erraza

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10
11	12	13	14	15
16	17	18	19	20
21	22	23	24	25
26	27	28	29	30
31	32	33	34	35
36	37	38	39	40
41	42	43	44	45
46	47	48	49	50

Zaila

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10
11	12	13	14	15
16	17	18	19	20
21	22	23	24	25
26	27	28	29	30
31	32	33	34	35
36	37	38	39	40
41	42	43	44	45
46	47	48	49	50

Puzzlea:

“Karrera osoan ez genuen inoiz ezer irakurri emakumei buruz, ekonomian duen parte-hartzeari buruz. Errealitatearen alde hori ezutatzen ari dira.”

5x5:

1. Hizki, 2. Inoiz, 3. Zoldu, 4. Kidea, 5. Izuak.

Piano doinuak Musscherentzat

2011N ezagutu zuten elkar Wim Mertens piano jotzaileak eta Kirmen Uribe idazleak. Orduko hartan, Bilboko Euskalduna Jauregian egindako poesia jardunaldietan, zenbait poema irakurri zituen Uribek, Mertensen piano doinuak lagunduta. Elkarrekin lan egitea sortzaile bien gustukoa izan zen, Bruselako Passaporta Literatura jaialdian berriz ere topo egitean, eta Robert Musscheren istorioaren berri izaterakoan, piano jotzaileak ikuskizun bat egitea proposatu baitzion. Zenbait pasarte ingelesera itzuli eta berehala bidali zizkion Mertensi, eta hura konposatzen hasi zen berehala, testuok inspiratuta. Horrela sortu zen *Mussche* nobelako pasarteak eta Win Mertensen musika batzen dituen kontzertu-errezitaldia.

Madrilen estreinatu zuten obra, abenduaren 1ean. Gerora, Donostian eta Bilbon eskaini dute. Logroñon (Errioxa) ere izan dira, eta laster, Bartzelonara eta Belgikara joko dute, Robert Musscheren jatorrizko herrira. “Donostiako ikuskizuna egin genuenetik, emanaldi guztiak euskaraz egitea erabaki dugu, tokian tokiko hizkuntzen

azpiztituluez lagunduta” azaldu digu Kirmen Uribek. Mertensi izugarri gustatzen omen zaio gure hizkuntzaren doinua, eta horregatik, hurrengo ikuskizunak, nahiz eta Euskal Herritik kanpo izan, eleberraren jatorrizko hizkuntzan eskaintzea erabaki dute sortzaileok. Gure hizkuntzak eta kulturak bizi duten bazterketa eta gutxiespenaren aurka, zenbait mito hausten dituen jarrera, dudarik gabe.

Istorioren errealaren indarra

Kirmen Uribek, Robert Musscheren idazle flandriarrari buruz kontatutako istorioak, hainbat irakurle hunkitu ditu dagoeneko, bai Euskal Herrian, baita kanpoan ere. Win Mertens dugu horietariko bat, flandriarra izaki hura ere.

“Hau da benetako abanguardia” esan omen zion Mertensek Uriberi, “ez delako ohiko poesia-errezitaldia, prosa baizik. Eta, nobelak badu erritmo mekanikoago bat, lokomotora edota makina baten antzekoa. Eta, Wimek idatzitako musikak ere erritmo bera du, makina baten antzekoa” azaldu digu idazleak. “Gainera, hizkuntza txiki batean, nazioar-

tean ezagutzen ez den hizkuntza batean egitea ere erakargarria egiten zitzaion Wimi”.

Baina, batez ere, historiak berak du indarra, idazlearen ustez. “Kontatzen dena oso gogorra da. Jendeak badaki benetan izandako pertsona batez ari garela, eta horrek sekulako indarra ematen dio ikuskaritari, ez baita gauza liriko bat”. Literaturan eta zinemagintzan ohikoa da errealitatetik fikzioa egitea. “Sekula ez da ahaztu behar, dena da fikzioa. Baina irakurleak benetakoa balitz bezala hartzen du. Izen-abizenek aritzeak lotu egiten du, bai irakurlea, baita, ikuskitzaren kasuan, entzulea ere”. ■

Myriam Garzia



Ekain berri

Euskal Kulturaren sustiraiak

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11

LALAGE SNOW/AFP



Uholdeek kaltetutako errefuxiatuak Bangla Deshen.

Klima aldaketari buruzko NBEren txostena: argi gorriak piztuta

NBEko IPCC erakundeak (Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak) bere bosgarren txostenaren bigarren zatia aurkeztu zuen martxoaren 31n, Japonian –gutxi gorabehera sei urtero argitaratzen dute txosten bat–. Adituek esandakoak kezka eragiteko modukoak izan dira. Hona hemen laburpen bat:

Sistema hidrikoenganako eragina

Eskualde askotako euri-joerak aldatu egin dira, eta glaziar ugari urtu dira; ondorioz, sistema hidriko naturalak aldatu dira. Elikagaien ekoizpenean eragin negatiboa izan du horrek; bestalde, animalia espezie askoren ale kopurua gutxitu egin da, edota migrazio ohiturak aldatu dituzte.

Ur edangarri gutxiago

Herrialde txiroetan lurrazpiko ura gero eta urriagoa da. Hala ere, kontinente guztietan dago arriskua ur edangarria nahikoa izan ez dadin.

Txirotasunaren hazkundea

Klima aldaketak hazkunde ekonomikoa motelduko du, eta horren

ondorioz pobrezia areagotu egingo da hiri handietan.

Gero eta gatazka gehiago

Txirotasunaren eraginez populazio multzo handiak mugituko dira batetik bestera, eta estatuen artean gero eta gatazka gehiago eta latza-goak izango dira baliabide naturalak eskuratzearren.

Uholdeak eta higadura

Itsas mailaren igoerak lehorreko eremu asko urperatuko ditu, eta jende multzo handiak beharko ditu migratzera.

Itxaropen bakarra, egokitzea

Eragin horien guztien neurria txikiagoa izan daiteke bitartekoak jartzen baditugu. IPCCko adituek azpimarratu dute egokitzeko beharrezkoa izango dela, klima aldaketaren ondorioak leuntzeko neurriak hartzearekin batera, herrialdeen arteko desberdintasunak laburtzea, pobreenen gaitasuna sustatuz. ■



Termodinamikaren bigarren legea hausten

Bartzelona, Zurich eta Vienako ikerlariak behatu dute laser baten eraginpeko nano-esfera batek ez duela termodinamikaren bigarren legea betetzen. Izan ere, esferak beroa isurtzen du bera baino beroago dagoen inguruko gas batera; gizakion espazio-denboraren eskalan ezinezkoa da hori. Ikertzaileek adierazi dute termodinamikaren bigarren legea berriro beharko dela, nano-eskalari dagokionez behintzat.

ttiki.com/63410
(Gaztelaniaz)

Lehenengoz lortu dute legamia baten kromosoma sintetizatzea

Aurrez beste inork lortu ez duena lortu dute New Yorkeko Unibertsitatean: legamia baten kromosoma artifiziala, erabat funtzionala gainera. Genetikaren alorreko hainbat ikertzailek lortu zuen lehendik kromosoma bat sintetizatzea, baina bakterioetan. Legamiak izaki konplexuagoak dira, beraz erronka zailagoa zen gauditu berri den hau.

ttiki.com/63411
(Euskaraz)

Tuberkulosia, katuek kutsatua

Erresuma Batuan bi pertsona tuberkulosiz gaixotu dira, euren katuek kutsatuta. Ikerlarien arabera, lehen kasu ezagunak izan dira horiek. Horrez gain, gutxienez beste bi lagun kutsatu dira tuberkulosiz, nahiz eta ez duten gaitza garatu.

ttiki.com/63412
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Uzta ospatzeko

BARATZEZAINZA puri-purian da. Baten batek esana du: zoriontsu bizi nahi baduzu, baratze bati ekin eta heldu. Zoriontsuago bai, baina nekatuago ere badabiltza nire inguruko baratzezain berriak. Ni, jakina, gustura nabil, bizigarri ederra da noranahi zabaltzen ari den giro hau. Lurra lantzea lanbide duenaren duintasunari bultzada bat emateko ere ez da txarra baratza itzultze hau...

Heldu, bada, aitzurrari. Baratzean nondik nora abiatu behar duen galdezka datorkidanari hitz bat gordetzeko esaten diot: gozatu. Ondo pasatzea bezalakorik ez da, langintza gogaikarrienean ere... Zenbait urrats ere komenigarriak dira: begiak eta belarriak ireki. Begiratu inguruan lehendik dau-den baratzei. Zer landatzen dute, noiz, nola... Eta baratzezainekin hitz egin. Izuak etxean utzi eta galdetu. Ari denari baino errazago esaten zaizkio kontuak eta triki-mailuak ezjakinari. Han eta hemen, zer ikusi eta zer entzun, adi ibili. Jakin-mina piztu eta landareei begiratzen ikasi, desberdinak eza-gutu, elkarri nola eragiten dioten...

Nolako baratzea nahi-ko zenukeen irudika-tu, mapatxo bat egin. Laguntza eskatzeko lotsetan ez ibili, bel-durrak uxatu eta giza-legeari heldu: lan handi eta nekosoeta-rako laguntza eskatu: simaurtzeko, lurra iraultzeko... Baratzea zaindu, baina ito gabe! Presarik ez izan, den-bora hartu eta eman: landare bakoitzak bere bizitza du, geuk bezalaxe. Idatzi: egiten dena, gerta-tzen dena, sumatzen dena, den-dena bildu eta jaso. Baratze bakoit-tza mundu bereizi bat da. Zurearen lurra, kokapena, norabidea eta ingurumena dituen beste inongo baratzerik ez da. Eta uztak ospatu. Lagundu dizutenekin ongi pasa; eta jateko orduan saio berriak egin, ausardia pittin bat!

Makina bat aldrebeskeria ere ikusten da. Baratzezaintzak, publi-koa izanik, badu lehia kiratsa. Uztak zeinek azkarrago ekarri, zeinek handiago... Jendeak ikara-garrizko lanak hartzen ditu garaiz



DANI BLANCO

kanpoko lanetan. Gehienetan alferrik. Urtez urteko eskarmen-tuarekin egutegi pertsonalizatua osatzea da onena.

Landare guztiak bertakotu eta egokitu egin behar dira; zaindu itzazu. Ikasi zein landare beste zein-en aldamenen jarri edo ez: horie-tan ere lagunak eta etsaiak dira. Batzuen ondoren beste batzuk hobeto etortzen dira. Plangintza eskasa maiz antzematen da. Han-dinahia ez izan, tamaina hartu.

Eta, usaintsuak eta lore emaleak diren landare eta zuhaixkak jarri inguruan; lagun onak izango dituzu. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Nire etxe ondoan inoiz ez da egon ereinotzik, baina orain urte batzuk bi jarri nituen eta momentu honetan ondoko lurrak bete-beteta daude landare horrekin. Lurraren osaerak badauka zeriku-sirik? Txoriek zabaltzen dituzte loreak?

Juan Daniel Barandiaran (Zamudio)

Kaixo Juan Daniel. Ereinotza (*Laurus nobilis*) ederki bizi da Euskal Herriko isuri atlantikoko lurretan. Toponimoetan maiz agertzen da eta horrek ere zerbait adierazten du (Ereño, Ereñotzu, Ereñozar...). Lurrak zeresana badu, baina bestela hedatuko ziren. Zeuk landatukoetatik abiatuta bi aukera ikusten ditut: edo fruituak txoriek jan eta haien barruko haziak sakabana-tu dituzte, edo landatutako bi haien azaleko sustraieta-tik landare berriak sortu dira.

Laster loretan dira eta gozatu! ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:

• Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.
Legutio ☎ 945 40 34 23



☎ 609 42 45 47 • lorelan@euskalnet.net

Bost hilabeteen hiru aldiz “konkistatu” zuten harri koskorra


MEDITERRANEO ITSASOA, 1831KO UZTAILA. Siziliako hegoaldeko kostaldetik hogeit hamar mila dagoen Enpedokles urpeko sumendiak eztanda egin zuen. Erupzioaren ondorioz 1,6 kilometro koadroko uhartetxoa sortu zen, barruan bi aintzira zituen. Ez zen sumendiak irla bat sortzen zuen lehen aldia; Enpedoklesen erupzioen aipamenik zaharrena Lehen Gerra Punikoaren garaikoa da, K.a. III. mendekoa. Baina fenomenoak ez zuen ordu-ra arte 1831ko uda hartan piztutako interesik sortu.

Irlatxo berria uztailaren 12an ikusi zuten lehenengoz. Abuztuaren 2an, labari hozteko denborarik ia eman gabe, Humphrey Fleming Senhouse kapitain ingelesa Maltatik abiatu zen, lur zati berria konkistatzeko. Graham Island izena jarri zion irlari eta britainiar bandera ipini zuen sumendiak botatako material gogortuan. Abuztuaren 17an Bi Sizilietako errege Fernando II.aren ontzi bat iritsi zen uharte koskorra. Senhousek jarritako bandera kendu eta Bi Sizilietako erresumako armari korapilatsua utzi zuten haren orde. Izena ere aldatu zioten; Ferdinandea ipini zioten monarkaren omenez.

Hurbiltasun geografikoa kontuan hartuta behintzat, logikoa zirudien uharte siziliarren eskutan uzteak, baina denek ez zuten berdin pentsatzen. Irailaren 29an frantziar espedizio zientifiko batek bere bandera ipini zuen eta hirugarren izena eman zion lur zatia: Île Julia.

Europako potentziek lurralde zati txikiak ere metatzeko obsesioa muturrera eraman zuten, eta ia-ia nazioarteko gatazka piztu zuten irlatxoaren subiranotasuna medio. Baina azken hitza —edo, hobeto esanda, azkenaurrekoa— naturak izan zuen. Laba solidotuak erraz higatzen ziren arroka porotsuak eratu zituen eta olatuen eraginez uharte desegiten joan zen. Abenduaren 17rako irlaren arrastorik ez zen geratzen ur mailaren gainetik. Bost hilabeteen hiru izen eta hiru jabe izan zituen lur zatitxo urpean geratu zen.

Orduz geroztik Enpedoklesen beste erupzioarik izan ez den arren, oraingoz behintzat AEBetako armadak



R. ACKERMAN

Enpedoklesen erupzioa eta uhartearen sorrera irudikatzen duen irarlana. Ingelesak izan ziren lehenak irla berria ikusten 1831ko uztailaren 12an eta handik gutxira lur zatia gainera subiranotasuna eskatzen lehenak izan ziren.

izan du azken hitza aferan, ohitura duen legez. 1986an AEBetako aireko indarrek Libia bonbardatu zuten El Dorado Canyon operazioan. Libiarako bidean, bomba hegazkinek itzal susmagarria detektatu zuten itsasoan, eta etsaien itsaspekoa zelakoan, bonbardatu egin zuten. Airetik ikusten zena Graham, Ferdinandea eta Julia izandakoaren arrastoa besterik ez zen. ■



Arrastoak

Izarrak ikusteko denboraren makina



WWW.STELLARIUM.ORG webguneak ordenagailuan planetarioa izateko aukera ematen du. Duela hamar urte garatzen hasi ziren softwareak zerua 3Dn eta modu erreala ikusteko aukera ematen du, begi hutsez edo binokular nahiz teleskopio bidez. Sistema eragile nagusiekin bateragarria da

programa, eta ahalmen handiko txartel grafikoa baino ez du eskatzen. Lurreko edozein puntutatik ikus daitezke izarrak, koordinatuak emanez gero, eta denboran aurrera zein atzera egiteko aukera ere ematen du; hala, historiako edozein data aukeratu eta egun hartan zeruak zer itxura zuen ikus daiteke. ■

Kendu giltzarrapoa erabakitzeko eskubideari

Giza kate erraldoi batez aldarrikatuko du Gure Esku Dago ekimenak erabakitzeko eskubidea demokraziaren oinarritzko printzipioa dela, nola Eskozian, edo Katalunian eta Euskal Herrian. Ekainaren 8an izango da, Durango eta Iruñea artean.

| URKO APAOLAZA AVILA |



ARGAZKI PRESS / ARITZ LOIOLA

Martxoaren 29an termometroa jarri zioten herri ekimenari: 1.200 lagunek osatutako giza kate batek Bilboko Arte Ederren Museoa eta La Casilla kiroldegia batu zituen.

50.000 LAGUN bildu nahi ditu Gure Esku Dago ekimenak datorren ekainaren 8an antolatu duen giza kate erraldoian. Durangotik Iruñera dauden errepideak jendez beteko dira egun horretan. 123 kilometroko bidea izango da, 27 udalerritan barrena, erabakitzeko eskubidea aldarri izango duena. Dagoeneko

22.000 pertsonak eman dute izena parte hartzeko.

Halako ekimena egiteko indarra eta gogoa baina, ez dira hutsetik sortu. Gure Esku Dagoren bozera-maile Zelai Nikolasen ustez 1998an Quebecen hasi eta azkeneko urteetan estatuturik gabeko beste zenbait herritan ere bizkortutako proze-

suen ufada nabari da. Euskal Herrian badira urte batzuk Idiazabal-en sortutako Nazioen Mundua taldeak bultzatuta erabakitzeko eskubidearen biran jo eta fuego dihardutela: “Idiazabaldarrendan-dik ikasi duguna ez dira ideiak soilik izan, baita gauzak nola egin behar diren ere. Aniztasuna eta orekak

TERMOMETROA • GURE ESKU DAGO

bermatuta, denok ikus dezagun emaitzan gure burua islatuta”, dio Nikolasek.

Eskoziara bisita egin eta txundituta geratu ziren goierritarrak, unionistek ere erabakitze eskubidea defendatzen zutela ikusita. Hori da funtsa. Eskubide “pre-politiko” gisa definitzen du Gure Esku Dagok: “Demokraziaren balioaz ari gara, helburua ez da abertzaleen arteko metaketa egitea. Erabakitze-ko eskubidea tresna egokia izan liteke Euskal Herriko aniztasuna eta bizikidetzaren egituratzeko”.

Zergatik giza katea?

Idea horiekin bat egiten duten hainbat jende biltzen hasi zen eta denak elkarrekin zer egiteko gauza ziren ikustea jarri zuten helburu: “Ariketa bat egitea pentsatu genuen, burujabetzarekin zerikusia izan eta gure

arteko lankidetzaren esparruak sortzeko balioko zuena”, azaldu du Nikolasek. Ordurako Via Catalana motorrak berotzen ari zen, 1989an Baltikoko herrialdeetan egindako giza katea gogoan. “Polita izan zitekeela iruditu zitzaigun”, eta hala, 2013ko ekainean aurkeztu zuten Durango eta Iruñea batuko dituen zita.

Ibilbidea aukeratzeko orduan, antolatzaileek alde aurretik neurria finkatu zuten, erronka bideragarri bat egiteko, eta hori 50.000 pertsona biltzea zen. Euren hitzetan Iruñeak badu esanahi berezi bat euskaldunentzat eta “sokatik tiraka hasi eta Durangora iritsi ginen” dio Nikolasek. Durango toki estrategikoan dago, Gipuzkoa eta Arabatik ez oso urrun, eta egoki ikusi zuten.

Katalunian gertatu bezala, sinbologiak badu bere lekutxoak ekimenean —“eskua” hitzaren adiera, esaterako—. Baina batez ere espontaneotasunari eman diote garrantzia. Ekitaldi ugari bideoz grabatu dituzte herritarrek eta YouTubera igo; beste askok Gure Esku Klip lehiaketan hartu dute parte imajinario osoz: bertsotan, dantzan, flash-



mobak eginez eta film laburren bidez. Kirmen Uriberen letrekin eta musikari nahiz abeslari ezagun andaren laguntzarekin egindako bideo-klipak 184.000 ikustaldi zituen artikulua idaztean. Twitterren ere iritzi ugari plazaratu dira #gureesku-dago traola erabilia: “Erabakitze-ko eskubidea onartzen ez denean esku-





Herrietan espontaneoki ari dira ekimenari babesa ematen. Irudian, Aguraingo bizikleta martxaren osteko giroa.

bide honen aldeko mugimenduarekin independentziarako bidea hasia da inteligenteena” zioen @unaiapao-laza erabiltzaileak.

Gure Esku Dagoko arduradunen esanetan ezinezkoa zaie jakitea herri bakoitzean zertan ari diren, nor bere kabuz ari baita ekimenari babesa ematen, eta bat-batekotasun hori oso positibotzat dute.

“Autodeterminazioa moduko kontzeptuak denbora gehiegi egon dira eremu politikoan giltzapetuta”

Zelai Nikolas,
Gure Esku Dago-ren bozeramailea

Dena den, koordinaziorik ez da falta, eta beste behin antolatze gaitasun handia erakutsi dute herriarrek. Astekari honi emandako datuen arabera 100 batzorde osatu dituzte herrietan: 9 Araban, 18 Nafarroan, 32 Gipuzkoan eta 41 Bizkaian.

Izena eman, metroa erosit

Bide guztia beteko dela ziurtatzeko, inskripzio sistema bat jarri dute martxan. Metroa salgai dago 5 euroren truke; kalean jarritako mahaie-tan nahiz ekimenaren webgunean eskuratu daiteke bonoa. Interneten izena emateko aplikazioak aukera

ematen du metro zehatza erosteko eta iradokizuna ere egiten du, hutsune gehien dauden lekuetara jotzeko. Izena ematen duenak petoa eta zapia izango ditu. Bidea kilometrotan zatitu dute eta zati bakoitzari herri zehatz batzuk egokitu. Adibide bat: Lazkaon 59-61 kilometroak hartzen ditu giza kateak eta bertara joan beharko dira Miribilla, Bilbo, Berrobi, Berastegi... eta beste bi dozena herritakoak.

Martxoaren 29an Gure Esku Dagok giza kateari termometroa jarri zion: 5.000 lagun bildu zituen Bilboko La Casilla kiroldegian. Ekaina bitartean zeresana emango duten ekitaldi gehiagorik antolatzeko asmoa ere badu.

Europako hauteskundeek bete-betean harrapatuko dute, ordea, kanpaina hori guztia: “Saiatuko gara talka ez egiten –dio Nikolas– eta ekitaldiak moteldu behar baditugu egingo dugu. Guk errespetatuko dugu alderdi politikoaren esparrua, haiei eskatu dieguna da uzteko guri egiten”. Bere esanetan alderdiak dira herritarren ordezkari zilegiak eta haiei dagokie erabaki eraginkorrak hartzea, baina herritarren ekarpena ere funtsezkoa da: “Autodeterminazioa moduko kontzeptuak denbora gehiegi egon dira eremu politikoan giltzapetuta eta herritarroei dagoki-gun eskubidea da. Gure gurasoek oso garbi eduki zuten ikastolak sortu zituztenean, intsumisio mugimen-

duak egon direnean ere bai; herritar-rak jabetu behar dira beren jarrerak zer garrantzia duen”.

Eta ekainaren 8aren ondoren zer? Orri zuri bat. Bertan hainbat galdera erantzuten saiatuko dira eta orri zuria bide-orri antzeko bihurtzen: zer lortu nahi den, zer printzipioen arabera, nola parte hartu, zein harreman egin... Udazkena haizetsu dator gainera, Eskoziako eta Kataluniako erreferendumei hauspotuta; Gure Esku Dagoko sustatzaileen asmoa da gertaera historiko horietan parte hartzea: “Euskal Herritarrok aukera izango dugu atzamarra jaso eta ‘e! Guk ere egin nahi dugul’ esateko”. ■

argia.com Gure Esku Dago kanalean ekimenaz informazio gehiago, mapak eta bideoak dituzu eskuragarri.



**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com

Udalarekin euskaraz, kalean gaztelaniaz nahiago

Bermeoko Udalak euskaraz dihardu %100ean. Herritarrak ohitu dira administrazioarekin euskaraz egiten. Erronka, ordea, herrian euskararen erabilera sustatzeak eta gehitzeak izaten segitzen du. Horixe du helburu 2017ra bitarteko plan berriak.

| MARIJO DEOGRACIAS |



EUSKARA SAILAK UTZIA

Udalaren helburuetako bat da bermeotarrak euskaldun izateaz harro egotea, baita euskararen aldeko sentimendua indartzea ere. Horretarako, besteak beste, jaio berriei bertso bana oparitzen diete. Argazkian, guraso-haurrak bat eginda.

HIRU DATU KOKATZEKO: 1) Erroldara aurkeztutako eskarien (derrigorrez idatziz) %74 euskara hutsean izan ziren iaz, Bermeoko Udalean. 2) Euskararen ezagutza %74koa da. 3) Kale erabilera %36,6koa da. Zenbakiek erakusten duten desoreka, gutxienez, deigarria da. Lehenengoaren azalpena Maite Alvarez de Zaratek eman digu, udal euskara teknikariak: “Udaletxean euskaraz egiten dugu lan”, are gehiago, “gure itzultzaileak batez ere erdaratu egiten du”. Bermeon, administrazioarekin euskaraz aritzea herritarren aldarrikapen izatetik errealitate izatera pasa da. Udalak hizkuntza lidergoa hartu du. Baina, kaleko erabilera ez dator bat udalarekiko hartu-emanetan

ematen den hizkuntza erabilerarekin. “Datuek diote erabilerak behera egin duela, baina ez dakigu joera bat den euskarak bizitza sozialean espazioa galtzea; ikertu egin behar da”, diosku udal teknikariak. Horretan ari dira UEMAn dauden gainerako udallerriekin batera. Bitartean, herrian bertan, bestelako egitasmo sendo bat daukate esku artean: *Geurean bai* dinamika. Bistatik galdu barik Soziolinguistika Klusterrak egindako 2011ko kale neurketaren datuak, 2013-2017 euskara plan berria onartu dute. Elhuyar aholkularitza enpresarekin batera egin dute plangintza eta jada laugarren euskara plana denak, transmisioa lantzea du lehen-tasunetako bat.

“Gizarte sektore askorekin gaude beharrean eta egin izan ditugu arloko diagnostikoak, kirol arloan, enpresa munduan, elkartegintzan eta familia-eskola esparruan”. 80 bat herritarrekin egindako hausnarketa prozesuan lau multzotan ematen zen erabilera aztertu zuten eta bost lan ildotan eragitea onдорiotzatu zuten: lidergoa landuz, euskaldun aktibotasuna sustatzeko; kontzientziazioa landuz, euskara erabiltzeak duen garrantziaz ohartzeko; euskarari balioa emanez, erabilera eremu guztietan euskarari balioa emateko; prestigiatuz, euskararen izen ona eta eragina bultzatzeko; eta sentimendua indartuz, euskaldun izatearen harrotasunaz jabetzeko.

Kirola euskaraz

Kirola da eragin esparruetako bat. Alde biko estrategia ari dira lantzen. Batetik, kirol patronatuarekin ari dira, kiroldegiko eskaintza euskaldunagoa izan dadin, “oraindik badirelako hutsuneak”. Eta, bestetik, herriko kirol talde biri lehentasuna eman diote: arraun taldeari eta futbol taldeei. Biak ala biak aukeratu dituzte “daukaten indar sinboliko eta presentziagatik”.

Alvarez de Zaratek aitortu digunez, “jakitun gara arraunean eta futboleko neska gutxiengana helduko garela, eta horregatik eskubaloi taldean ere hasiko gara lanean, hor neska gehiago dabilatzalako”. Gimnasia erritmikoak batzen ditu Bermeon neska kirolari gehienak, baina hor esku-sartzea zailago ikusten du udal teknikariak, begiraleak kanpotik ekartzen dituztelako eta gaztelaniaz aritzen direlako. “Kontziente gara egoera hobetzeko aukera gehien daukaten taldeekin hasi garela”, dio teknikariak.

Benetan maite nauzu?

Prestigioaren eta sentimenduen arloan garatzen hasi diren egitasmoa da *Benetan maite nauzu?* testa (tiki.com/63393). TELP tailerren ondotik aktibatze talde bat eratu zen herrian. “Bi hilerik behin, bakoitzaren eragin eremuan zer egin daitekeen landu dugu. 2-3 urtez aritu gara eta orain gurasoeekin ari gara lantzen”, azaldu digute. Testak proposatzen du hainbat egoeratan zaudela euskaraz ala gaztelaniaz aritzen zaren erantzutea. Helburua euskaraz ala gaztelaniaz aritzeko motibazioaz herritarren artean hitz egitea, eztabaidatzea izan da. Alvarez de Zaratek azaldu digunez, oraingoz galdetegia kalean baino ez da banatu, baina esperientzia polita izan dela-eta, jarraitzeko asmoa daukate. Izan ere, gurasoeekin hasitako lanetik eratorri zen test hori eta herriko lau ikastetxeetako guraso elkarteekin bigarren sesioari ekin diote dagoeneko. Norberaren hizkuntza ohiturak besteengan duen eraginaz jabeatzeko asmoz, eta euskarari dagokion lekua aitortzeko asmoz ari dira lanean.



MARIJO DEGRACIAS

Kalinpan, edari isotonikoaren lata itxurako panpina da. Kirola egitea ona dela, eta kirola euskaraz egiteko inolako arazorik ez dutela erakusteko sortu zuten. Herrian egiten diren kirol ekitaldi guztietan parte hartzen du.

Sormena, estrategikoa

Transmisioa lantzeko egitasmoen artean, batxilergoko ikasleei zuzendutako literatur tailerrez eta irakurzaletasuna sustatzeko irakurleen txokoz gainera, *Ipuin lapikoa* egitasmoa ere abiarazi zuten. Belaunaldien arteko harremana eta ahozko transmisioa sustatzeko ekimena da. Herritar talde bat batzen da dinamizatzaile-ipuina kontalari batekin. Lan dinamika erra-

“Datuek diote erabilerak behera egin duela, baina ez dakigu joera bat den euskarak bizitza sozialean espazioa galtzea”

Maite Alvarez de Zarate, udal teknikaria

za da: gai bat emanda, herriko adinekoek oroimenari astindua ematen diete sasoi bateko historiak gogoraziz. Orain, eskola publikoko 5. eta 6. mailako ikasleekin ari dira elkarlanean. Ikasleek etxetik gai horren inguruko informazioa eramaten dute eskolara eta herriko zaharrenekin trukatzeko dute. Aurrera begira, historia eta informazio hori guztia ipuinak sortzeko erabili nahi dute. Eta, ondo bidean, urte amaierako jaian gurasoen aurrean antzeztuko dituzte ipuinak. Alvarez de Zaratek dioenez, “gauza txikitxo bat da, baina oso

polita, eta kulturaren transmisioarekin zuzenean dago lotuta”.

Ume jaio berrien bertsoak

Euskara planaren bosgarren lan ildoak sentimenduen indartzeari dagokio; zehazki, euskaldun izatearen harrotasunaz jabetu eta aldeko sentimendu hori indartzea. Bermeoko euskara plana, baina, ez da hutsetik sortu. Aurreko hamarkadan egindako lanaren ondorio da, eta ordukoa da ume jaio berrien bertsoen ekimena. 2002an hasi ziren herrian jaiotzen ziren umei bertso bana oparitzen. Gernikako LiliBertso taldearen laguntzarekin egiten dute. Bertsoa oparitzen diote umeari eta bertso guztiak urtero liburuxka batean jasotzen dituzte. Honezkero 2.000 bertso inguru sortu dituzte. “Euskararekiko maitasuna, sentsibilizazioa sortzea da helburua, azken batean, sentimenduekin lotzea hizkuntza”.

Aipatutakoak ekimen zehatz gutxi batzuk baino ez dira. Euskara plana 2017ra arteko epean joango da gauzatzen. Izan ere, Bermeoko euskara aholku batzordeak herriko 300 bat eragilarekin dauka harreman sarea eta hori mugitzeko eta kontzientziazio kanpaina zabala egiteko asmotan, urratsak ematen segitzea du helburu. Udala euskalduntzea lortu duten eran, herrian euskararen erabilera ezagutza mailatik gertuago egon dadin ahaleginak egingo dituzte. ■



5 milioi dokumentu itzuli ditu 2013an Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile automatikoak

IAZ 5 MILIOI ITZULPEN baino gehiago egin ziren www.itzultzailea.eus-kadi.net webgunean, Eusko Jaurlaritzak zintzilikatuta duen erremintan. Euskaratik gaztelaniara, gaztelanitik euskarara eta ingelesetik euskarara itzultzeko aukera dago.

Itzultzaile automatikoa 2012an jarri zen abian eta duela gutxi Eusko Jaurlaritzak hobetutako bertsioa aurkeztu du. Sarean erabiltzeko erreminta zena mugikorretarako egokitu dute. Android eta IOS sistema eragilea dutenek aplikazioa deskargatu eta itzultzaile automatikoa erabili ahal izango dute. Telefonoan testua idatzi beharrik gabe, ahoz diktatu eta mugikorrek berak idatziko du testua. Ondoren itzuli egingo.

Horrela kontatuta badirudi pagotxa ikaragarria dela itzultzaile hau. Ordea, testu laburrak eta webguneak itzultzeko gaitasuna du. Eta ohar garrantzitsua: giza-



kiaren ondorengo zuzenketarik gabe itzulpenok ez dira balekoak, itzulpen perfektua (inoiz lortuko bada) urrun dago. Jaurlaritzak ondoko oharra jarria du: “Laguntza-tresna bezala hartu eta kon-tuan izan emaitza BETI gainbegiratu behar dela”, baina tamalez galbahe horretatik soilik pasatako itzulpen ulertezinak batean eta bestean ikusten ditugu. Azkena, ARGIAN jaso genuen eskutitza, inprimagailu etxe ezagun batena. Zer esan nahi zuen jakin nahiz gero gaztelaniazkoa irakurri behar, derrigor.

Bahea

Paxkal Indok Aizu! aldizkarian esanak:

“Frantziak, 1870ean, gerra bat galdu zuen Alemaniaren kontra; I. Mundu Gerran, Iparraldeko herri guzietako hainbat gizonetzko borrokatu eta hil ziren, eta ez zekiten frantsesez. Nonbait, bataila asko galdu ziren soldaduak ez zirelako hizkuntza berean mintzatzen, ez zituztelako aginduak ulertzen. Traumatikoa izan da Frantzian gai hori, gerla horien ondoren erabaki zuten haur guziek frantsesa jakin behar zutela. Hori izan da Frantzian hizkuntza gutxituen erradikazioaren lehen fasea, gerra haien ondorioa da egungo pentsamolde arras nazionalista: denak berdin, hizkuntza bakar bat. Eta beste bat nahi izanez gero, familia giroan baino ez. Gauza serioak, gerra eta beste, frantsesez! Trauma handi hori, nonbait, oraindik hor dago. Frantses hizkuntza mito bilakatu da Errepublikan, guretzat oso zaila da frantsesaren kontra bizitzea”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Soldatak eta enplegua

SINDIKALGINTZA ABERTZALEAK mezua zabaldu du, soldatak igo eta enpleguaren sorrera hobetu dadin. ELAk eta LABek, nork bere aldetik, kanpaina bat iragarri dute eztabaida zabaldu eta mobilizazioak eginez negozioazio kolektiboan KPIaren gaintik legokeen soldata igoera lortu ahal izateko. Bi sindikatuek nabarmendu dute azken urteetan Euskal Herrian soldatak bortizki murriztu direla. Patronala salatu dute, NDFren aginduei jarraiki –lan kostuak %10 debaluatu nahi ditu– soldatak murriztearen alde segitzen du-lako. Soldaten murrizketarekin enplegua sortzen dela dioen patronalaren mezua arbuia dute sindikatuok; enpresa-etekin handiagoak baino ez dira lortzen haien esanetan. Enpresariak langabezia eta prekarieta-te tasa handia baliatzen ari direla diote, modu horretan langileak beldurtu eta soldata baxuagoak onartzen dituztelako.

Soldatak igota enplegu gehiago sortzeko aukera gehiago dago; prestazio sozialak hobetuko lirateke eta diru-sarrera publikoa handitu. Erostea ahalmen handiagoa balego, kontsumoa berriz aktibatuko litza-

teke, hazkunderaren etsai den deflazio arriskua desagertuko litzateke, eta aberastasuna sortu. Beraz, soldatak KPIaren gaintik igotzeak esan nahiko luke, kontsumoa handituz aktibitate ekonomiko gehiago beharko litzatekeela, lan esku gehiago, langabezia gutxiago. Gizarte segurantzara kotizatzen eta zergak ordaintzen dituzten pertsona gehiago leudeke, horiekin laguntza sozialak bermatuko lirateke eta baita hobetu ere. Testuinguru horretan, garrantzitsua da gizon eta emakumeen arteko soldata ezberdintasuna ere eztabaida horretan sartzea. Zenbait kalkuluren arabera, Hego Euskal Herriko gizonen soldata gordina emakumeena baino 7.217 euro handiagoa da; %33 gehiago kobratzen dute gizonak.

Bi sindikatuek ideia berak edukita, komeniko litzateke bat egitea eztabaida hori enpresetara eta jendar-tera eramateko, baita mobilizazio sozialak deitzeko ere.



Juan Mari Arregi

TERMOMETROA

GALLARDÓNEN LEGEAREN AURREAN

Feminismoa batuta eta indartsu

Mugimendu feministek deitutako inoizko manifestaziorik jendetsuenetakoa izan zen apirilaren 5ean Iruñeko kaleetan. Espainiako Gobernuaren abortu legearen aurreproiektuari ezetz esateaz batera hainbat aldarrikapen entzun ziren: emakumeari dagokiola bere gorputzaz erabakitzeko eskubidea, abortua Osakidetzak eta Osasunbideak bermatu behar dutela eta ama izatea aukera bat dela. Ehundik gora eragile sozial eta sindikalek egin zuten bat manifestazioarekin. Aldarriak adina toki izan zuen irudimenak eta festa giroak.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE, ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Bideoak webgunean (www.argia.com)





“Klinika pribatu batzuetan galdera egin diote abortatu duten emakumei: ‘Delitua izango balitz abortatuko zenuke?’ 4tik 3k baietz erantzun dute. Orain eskubidea da, bihar delitua izango da?”

Begoña Zabala Abortatzeko eskubidearen aldeko Nafarroako batzordeko kidea eta abokatua

“Iruñeko fatxa eta Opus Deiko guztiak ikararuta geratuko dira nazio bat, herri bat batu delako”

Miren Aranguren Bilgune Feminista

“Ezinezkoa da pentsatzea arazo hau ez dela nazionala, %50aren gorputzen gainetik erabaki batzuk hartu nahi direnean”

Onintza Enbeita Amaiurko Parlamentaria

“Aberatsak igandetan mezetara joango dira eta hurrengo egunean abortatzera. Txiroek abortatzen jarraitu beharko dugu baina baldintza okerragoetan”

Ainhua Etxaide LAB

“Alderdi politikoetako kupoa ere itxurakeria hutsa da. Benetan emakumeek gizonen pisu bera balute horrelako lege bat egongo litzateke mahai gainean? Pentsaezina litzateke”

Maite Aristegi Amaiurko Parlamentaria

“Zer esan bizitza argudio darabilen Elizari? Gu ere bizitzaren oso alde gaudela, bizi garenon alde. Baietz, gora bizitzak eta gora emakumeon bizitzak!”

Kattalin Miner Feminista

Erreformaren aurkako ekintza deigarrienak

Munillaren aurrean

Gotzainen Batzarrak “Bizitzaren aldeko eguna” ospatzen zuen bitartean, Abortatzeko eskubidearen aldeko plataformak kalejira egin zuen San Pedro elizaren aurrean.

► Martxoak 25, Donostia

Martxoaren 8ko manifestazioak

Emakumeen Nazioarteko Egunean abortuaren lege erreforma izan zen ardatz. “Gure

gorputza. Territorioa. Erabakia” hala zioen Euskal Herriko Koordinadora Feministaren afixak.

Flash moba

Iruñean jai giroan egin zuten protesta, eta manifestazio bukaeran flash moba egin zuten Gaztelu Plazan.

► Martxoak 8, Iruñea

Rajoyren hitzaldia eten zutenekoa

Euskadiko PPK kongresua egin zuen Kursaal. Jone



Arrazola Maiztegi, Maria Ajuria Hernandez, Olaia Auzmendi Sarasa eta Rebeka Maestro Watson ekintzaile feministak biltzarrera sartu ziren. Espainiako Estatuko presidentea hitzaldia ematen ari zenean, eskuak zein aurpegia gorritz margotu, zutitu

eta eskuekin sinbolo feminista irudikatuz oihuka hasi ziren: “*Aborto ilegal, violencia estatal*” eta “Gure gorputza, gure erabakia”.

► Martxoak 8, Donostia

Gorputzak erregistratuta

60 bat emakumeek Gasteizko Jabetza Erregistroan euren gorputza erregistratu zuten, gorputza norberarena dela



Koplak

*Agertu da ministroa
eta montatu du kristoa:
antza estatu arazoa da
gure tripa azpikoa!*

*“abortoa gaizki dago
inmoral da”, akabo!
Gure gorputzaz omen dakite,
guk baino askoz gehiago!*

*Gero umeren bat txarto
badago gaixo delako
osasungintza murrizten dute
berdin-berdin zaielako.*

*Gallardón bai zentzuduna!
Emakumeon laguna!
Badaki antza tutore gabe
gaizki egingo duguna!*

*Esaten digu: lasaitu!
inork ez gaitzan epaitu:
guk ez dugu nahi, baina dekretuz
“biktima” egingo gaitu.*

*Ez du ulertuko sekula
benetako pelikula:
ez errudunak, ta ez biktimak
libre izan nahi dugula.*



aldarrikatzeko.
Bilbon eta Iruñean
ere egin zen ekintza
beste egun
batzuetan.

► Martxoak 7, Gasteiz

Andre Maria Zuriari perrexil eskaintza

Abortatzeko erabili
izan den landarea era-
man zion Arabako



Emakumeen Asanblada-
dak Elizaren jarrera
salatzeko.

► Martxoak 5, Gasteiz

Eskean, Londresera abortatzera joateko

150 emakume elkartu
ziren Andre Maria
Zuriaren plazan,
Arabako Emakumeen

Asanbladak deituta.
Belaunikatu eta dirua
eskatu zuten,
Londresera
abortatzera joateko.

► Martxoak 25, Gasteiz

Akelarre

Sorginez jantzi eta
akelarrea egin zuten
abortu libre eta



doakoa eskatzeko,
Abortatzeko
eskubidearen aldeko
plataformak deituta.

► Otsailak 8, Bilbo

Baionako kontsuletxean protesta

Otsailaren 2an
elkarretaratzea egin
zuten Espainiak

Baionan duen
kontsulatuaren
aurrean, Iparraldeko
hogeitaz taldek deituta:
hala nola Familia
Plangintzak, Altxa
Neskatzak eta
Emazteek Diote-k.
Kontzentrazioan
parte hartu zutenen
artearen egon zen
Martine Bisautia
Baionako alkateordea.
Hiru egunera, lege
aurreproiektuak
aurrera jarrai ez
dezan galdegiteko
2.500 izenpedura
baino gehiago
aurkeztu zituzten
Baionako
kontsuletxean.
► Otsailak 5, Baiona



Ospitaleetan itxialdi saiakerak eta kateatzeak

Iruñeko Virgen del Camino ospitaleko amaetxean, hainbat emakumek ahoa itsasgarri gorritz itxi zuten eta gorputza kateatu, emakumeen erabakiak euren ahoa bezala estaltzen direla salatzeko. Bilboko Gurutzeta ospitalean itxialdia egiten ahalegindu ziren ehun emakumetik gora atera zituen Ertzaintzak. Donostiako Ospitalean eta Gasteizko Santiago ospitalean ere itxialdia egiteko asmoa zuten,

baina Barakaldoko protestez ohartarazita, ertzainek erietxetan sartzea eragotzi zieten emakumeei. Hiriburuz kanpo ere egin ziren ekintzak eta Ermuko udaletxean lo egitea lortu zuten 60 lagunek, Gallardonoren legearen aurka.

► Abenduak 27, Iruñea, Donostia, Bilbo, Gasteiz

Lehen elkarretaratzeak

Espainiako Gobernuak abortu legearen erreforma onartu eta biharamunean egin ziren Hego Euskal Herriko hiriburuetan.

Euskal Herriko mugimendu feminista taldea sortu zen.

► Abenduak 21, Donostia, Iruñea, Bilbo, Gasteiz

Manifestazio amaieran momentu hunkigarria izan zen denek batera "Zutik emakumeak" kantatu zutenekoa. Furia hip-hoplariak bero-bero jarri zuen giroa, *Aborto retrospectivo* kantuarekin.





Sarea

Abortatzeko eskubidearen aldeko plataforma nazionala Hego Euskal Herrian dago hedatuta, eta adar bana du herrialde bakoitzean. Ipar Euskal Herriko mugimendu feministak atxikimendua adierazia dio plataformari. Herrialdekako plataformetan talde feministek eta norbanakoek hartzen dute parte.



Autobusak atera ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat herritatik, besteak beste: Markina-Xemein, Algorta, Tolosa, Ermua, Ezkerraldea, Arratia, Basauri, Bilbo, Ondarroa, Uribe Kosta, Durango, Gasteiz eta Donostia.

1985eko legea baino atzerakoia

• 2010eko legea

Emakumeek haurdunaldiaren 14. astera arte abortatzeko eskubidea daukate, inolako baldintzarik bete beharrik gabe.

22. astera arte luza daiteke abortatzeko aukera, baldin eta amaren bizitza edo osasuna arriskuan badaude edo fetuak anomalia larriak baldin baditu. Fetuak arazoak ditue-nean abortuak egiten dituzten bi medikuren txostenak behar dira.

Fetuak bizirik jarraitzeko aukerarik ez duenean, gaixotasun oso larria eta sendaezina duenean, abortatzeko epea mugagabea da.

• 1985eko legea

Abortatzeko eskubidea izateko hiru baldintza zeuden: bortxaketa, fetuaren malformazioak eta amaren osasun fisiko edo mentalaren arriskua. Lehenengoan 12. astera arteko epea zegoen abortatzeko, bigarrenengan 22. astera artekoa eta hirugarrenean ez zegoen epe mugarik.

• Espainiako Gobernuak ezarri nahi duena

Epeen eredurik ez da aurreikusten. Bi baldintzatan abortatu ahalko da: bortxaketa jasan badu edo emakumearen osasun fisikoari eta psikikoari kalte larria eragiten bazaio.

Bortxaketa: salaketa jarri beharko da eta 12 asteko epea egongo da abortatzeko.

Amaren osasuna arriskuan: hiru sendagilek egiaztatu beharko dute osasun egoeraren larritasuna. 22. astera arteko epea egongo da abortatzeko.

16-18 urtekoek, orain arte ez bezala, gurasoen baimena beharko lukete abortatzeko.

Legeak aurreikusitakoa beteko ez balu medikua zigortuko lukete, ez abortatu duen emakumea.

2010etik hona Hego Euskal Herrian egin diren abortuen %95 delitu lirateke Espainiako Gobernuak ezarri nahi duen lege berriaren arabera. ■

Txano gorriak: energia-trantsizioa ere bada jokoan

Bonnets rouges frantsesez, *bonedoù ruz* bretainieraz, euskaraz txano gorriak. Iazko udazkenean Bretainia astindu zuten autobideetako *peaje* atariak kiskaliz, Parisko gobernuak ezarritako ekotasari bidea ixteko. Isilago bada ere lanean segitzen dute geroztik. Erreketak gertatzen dira tarteka. Eta martxoaren 10ean biltzar nagusia izan berri dute.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

HIRU MILA LAGUN INGURU BILDU dira Morlaixen (Montroulez breizheraz) martxoaren 10ean, *Le Télégramme* egunkariaren fotoetan ikus daitezke beren txano gorri ezagunak buruetan.

Erwan Kernek ARGIAN “*Bretainia-ren kolera gorria*” kronikan azaldu zituen bretainiar matxinoon aldarrikapenak. Horiek 15 ataletan bildurik onartu dituzte Montroulezeko biltzar nagusia. *Le Télégramme* kontatu duenez, lehentasuna dute kamioientzako ekotasaren betirako baztertzeak eta Frantziak eskualdeei (*regionalisation* asko esatea da Hexagonoan, inor gutxi ausartzen da frantsesa ez den beste naziorik aipatzera) ahalmen handiagoak emateak.

Eskari gehiago ere badira, ordea. Bretainiari berriro atxikitzea Loire-Atlantique departamendua, Nantes-Ar Naoned barne. Bretainiak zigortzen duten zenbait lege eta arau frantses desegitea. Bretainieraren erabilera zabaltzea eskoletan. Breizherazko hedabideak gehiago babestea. Itsas bazterreko trafikoa sustatzea. Eskualde jakin bat “zona franko” izendatzea. Bretainiaren historia sartzea eskoletan.

Baina osagai gehiago ere baditu Bretainiako matxinada berriak, eta horretaz ohartarazi digu Nafarroa Beheretik I.E. irakurleak (zorionekoak ARGIAko langileok, irakurle

zorrotzak edukitzeagatik), gure esku jarritz joan den abenduaren 18an *Mediapart* hedabideak eskaini zuen eztabaida interesgarria: “*Bonnets rouges et écotaxe: le débat Troadec-Etxeverry*”. Osorik ikusgai daude bere 43 minutuak *Dailymotion*en.

Christian Troadec alkate abertzalea da Carhaix-Karaezen. Euskaldun askok ezagutzen dute ondo herri hau, Oiartzunekin senidetua. Troadec da, gainera, txano gorrien lider ezagunena.

Noël Txeix Etxeberri Iparraldeko Bizi! mugimenduko liderretakoa da, Abertzaleen Batasuneko kide ezagunetarik. *Mediapart*ekoek ez diote alferrik deitu Txeixi: azken hilabeteotan Lapurdiko autobideetan ekitaldi deigarriak burutu dituzte Bizil-koek... kamioientzako *pollutaxe* edo kutsatzeagatik zerga eskatuz preseski.

Bizi!-koak askoz lehenagotik ari ziren kutsatzaileek ordaindu dezaten exijituz. Petrolioia, gasa, ikatza... gero eta urriagoak dira, dagoeneko zerga garestitzen ari eta etorkizunean askoz karioago izanen dira. Bide batez, milioika urtez pilatu diren erregai fosilak urte gutxitan kiskaliz klimaren aldaketa ari gara eragiten, dagoeneko gertatzen ari da.

“Gure haurrak —dio Txeixek— harrapaturik utziko ditugu giltzarra-po bikoitz batean. Alde batetik

Le Journal du Dimanche egunkarian Maxppp batek sinatutako irudian, *bonedoù ruz* bretoi bat Frantziako gobernuak kamioiei ekotasa kobratzeko eraikitako atari bat suak nola kiskaltzen duen begira; aurrean jendarmeak. Irudi txikia, Bizi! kolektiboak bere gunean erakusten duena, Lapurdiko Miarritzen hartuta dago: Bizi!-ko kideak autopista gaineko zubian kamioientzako *pollutaxe* edo *kutsazerga* ezartzea aldarrikatzen, eragiten duten kutsadura pagatu dezaten. Bretainian txano gorriek sortutako liskarrek hainbat irakurketa eragin dituzte, seguruenik osagai asko nahasita sortu delako mugimendu interklasista hau. Bada herri arazoa, hizkuntzarena ere bai, bada sistema aldatu nahi dutenen ezinegona, bada ere sistemaren kudeatzaile diren patronal eta sindikatu handien eskua ere. Horrelako borrokak ugaritzen ari dira energiaren eta klimaren krisi bikoitzak eraginda.

geuk eragindako klimaren aldaketaren ondorio ikaragarriak. Bestetik, geuk xahuturik, horiei aurre egiteko behar den energia gabe, dela dikeak egiteko eta abar”. Hortik *pollutaxe* bezalako zergen beharra, egin beharreko trantsizioa finantzatzeko.

Bizi!-k trantsiziorako politika baterako proposamen zabala landu du azken urteotan, eta lortu du azken udal hauteskundeetan ateratako euskal alkateen hiru laurdenek beren kanpaina estrategia hori onartua edukitzea.

Aldatu beharra krisiaren erdian

Karaezeko alkatearentzako, berdin txano gorrientzako, ekotasa iritsi zaio Bretainiari bere ekonomia lur jota dagoenean, milaka lanpostu itxita, agro-elikadura osoa krisian itoa. Ahularen buru gainera zerga berri bat, ustez alternatibak eraikitzeke balio behar duena, baina oraindik alternatibarik ez dagoenean. Bretainia penintsula da, bere produkzio gehiena esportatzen du eta ia dena kamioiz.

Azken 50 urteotan Bretainiak trenbide sarea ia guztiz galdu du. Kamioiek, gainera, produktu bera batera eta bestera darabilte produkzio katean, handik pentsuak ekarri, hemen oilaskoak gizendu, harantzago hil, urrun eraman zatitzera, berriro ekarri ontziratzeke... ekota-



sa txikia izan arren joan-etorri guztioz garestitzen dute dagoeneko lehiakorra ez den produktua. “Gure onerako dela esanez dagoeneko ahulduta dagoen eskualde bati Paristik zerga berri bat ezartzea, hori jendeek ez dute onartzen”.

Bretainiak ez du onartzen kamioiak ukitzerik. Aldiz, Bizil-k salatzen du gehiegi laguntzen zaiela kamioiei: zergatan gutxiegi pagatzten dute autobideen mantenua kostatzen denaren aldean. Azken finean, herritar guztiak ari dira pagatzen kamioiek eragindako gastuak. Bitartean, SNCF tren konpainiak segitzen du bere lanpostuak gutxitzen, burdinbide gaineko garraioa ahultzen. “SNCFk nahi du trenbideko langileak bihurtu daite-

zen kamioi txofer”, argudiatzen du Txetxek.

Azkenean ekotasa bertan behera utzi du Parisko gobernuak, Bretainiako protesten baina baita ere kamioi jabe handien lobbyaren presioz. Baina Bretainiak krisi ekonomikoan murgildurik jarraitzen du, hein handi batean herrialde horren indargunea izan den agro-elikadura gainbehera datorrelako.

Nekazaritzan oinarritua eta esportazioari begira antolatua dago Bretainiako ekonomia 1960ko hamarkadatik. Globalizazioarekin prezioen gerra betean sartuta, lehiakortasuna eten gabe galdu du. Oilasko eta txerri haragi merkean berezitu baldin bazara, beti egonen da munduan horiek merkeago

gizendu eta salduko dituenik. Orain Europa bere PAC arau nagusia berritzera doanean, okela merkea merkaturatzen berezitutako industriak diru-laguntzen parte bat galduko du. Askoz diru gehiago, ekotasarekin pagatu beharko zutena baino.

Bretainiako nekazaritzak sortzen duen balioa arras erori da azken hamarkadotan. Sortzen diren labore eta aziendetatik oso gutxi transformatzen da bertan, granjetan hazitako txerrien herena. Frantziak gaur egun inportatzen du kontsumitzen dituen oilaskoen %44. Aldiz, Bretainiak esportatzen ditu oilasko merkeak Ekialde Hurbilera. Frantsesendako txarregiak. Eta oilasko horietan txapelduna den *Doux* lantegien jabea da Frantziako aberatsenetakoa eta nekazaritzako PACetik diru gehien jaso duena.

Kontua da trantsizioa ez dela erraza. Troadecek dioen moduan, “eredu hori eraiki da 1950-1960 urteetatik, horretan utzi dute bizia gure gurasoek, nireak barne, eta eredu horretan lortu dute gutako asko Bretainian geratzea, bertan lan eta bizitzea erabakita. Ez dute beste aukerarik izan. Orain ikusten dira haren hutsak”.

Txetx Etxeberri defenditu du kamioien kutsadurarentzako tasa nekazaritzan duela 60 urte egindako okerra berriro gerta ez dadin. Nekazaritzan ez zituzten aurreikusi erabaki haiekin sortu behar zituzten arazoak. Orain arriskua dugu etorkizunean beharko dugun energia alaiki xahutzen jarraitzeko. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Irabazlea, memoria eta presoak

36KO GERRAN zer gertatu zen? Ba ote da memoriaren gutxieneko adostasuna Espainian? Eta Euskal Herrian? Zein ote da gerra zibil haren kontakizuna? Haren amaieratik 75 urtera, oro har, bi ikuspegi nagusi behintzat izan dira eta badira Espainian. Eta Trantsizioa zer eta nolakoa izan zen? Eredugarria. Adostasun maila handia da Espainian, besteak beste Adolfo Suarez-en heriotza eta *Cuéntame* telesailaren gisakoen memoria lanketari esker. Euskal Herritik desberdin ikusten da: bada eredugarri ikusten duen esparru zabala, eta bada desegokitza jotzen duen eremu are eta handiagoa, oraindik bigarren trantsizio bat ere aldarrikatzen duena. Hori ia berrogei urte geroago.

Zein da nazioarteko kontakizuna Saharako Mendebaleko gatazkaz? Helburu politikoak lortzeko biolentziarik ez erabiltzeko kontsentsutik at, non ote da Ipar Irlandako gatazkararen memoriaz katoliko eta protestanteek gaur egun dituzten adostasunak? El Salvadorreko bake prozesuaren ondoren, nola beatuko dituzte Oscar Romero eta Ignacio Ellacuriaren hilketak askapenaren teologiaren oinardekoek eta ARENAkoen seme-alabek? Serbia, Kroazia eta Bosniako egungo agintariek zer bateratu dute haien arteko gerraren ikuspegiaz? Gerra Hotzaren memoria berdina izan daiteke, adibidez, Josep Fontana historialari katalanaren *Por el bien del imperio* irakurri ondoren?

IÑIGO CABACAS duela bi urte hil zen Bilbon, ertzain batek jaurtitako gomazko pilotakada batek eragindako zaurien ondoren. Juan Calparso EAeko fiskal buruak

esan du auziarekiko aukera guztiak irekiak direla, baina baita berau ixtea ere. Agian ez da ez ertzain ez agintari errudunik izango. Noren biktima ote da? Eta Iruñeko okin Angel Berroeta? Eusko Jaurlaritzako agintariek kargu hartuko al diote Mariano Rajoyri bere gobernuak GALEko biktimak ETArekin biktimak moduan tratatzen ez dituelako? ETArekin biktimekiko eta Estatuaren biktimekiko memoria hain desberdin jorratzen denean, posible ote da memoriari buruzko oinarritzko puntuen batez bestekoa egituratzea?

Zer nahi da, Bilduk edo Sortuk aitortzea borroka armatuaren estrategia akats historikoa izan zela eta erratu egin zirela? ETAk hori esatea nahi da?

MEMORIA kontutan, dena den, indarra borondatea baino esanguratsuagoa dela dirudi, batez ere horrekin historia egiten delako. Estatuak ETA garaitu badu, ba al du zentzurik hainbeste tematzea galtzaileei beren memoria eta ibilbide politikoari uko egin diezaioeten eskatzearekin? Helburua zein da, bizikidetza edo garailearen memoria finkatzea? Zer nahi da, Bilduk edo Sortuk aitortzea borroka armatuaren estrategia akats historikoa izan zela eta erratu egin zirela? ETAk hori esatea nahi da?

Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetza idazkari Jonan Fernandezek aldizkari honetan iradoki berri du ezker abertzaleak bere iraganaren kritika egin behar duela, gutxienez biktimei eragindako mina justua ez dela izan aitor

dezan. Eta arrazoi osoa du, norbait hiltzea erabat injustua da, nekez bila daiteke justizia gerraren edo biolentziaren jardunean, ezta estatuen biolentzia erabilpen legitimoan ere. Baina bada tarterik hori justua izan ez dela aitortzetik eta ETAk bere izana eta iragana ukatzeraino. Euskal gatazkararen memoria jorratzean bada egia, justizia eta erreparazioari begira egin beharreko lan garrantzitsua, eta alde bakoitzak egin beharko du bere iragan eta jardunaren kritika zorrotza. Baina memoria egin nahi horretan bada baita ere irabazleen ikuspegia finkatzeko asmo zorrotza eta

horretarako, adibidez, euskal presoak espetxean izatea oso garrantzitsua da –“ez dago inpunitaterik, justizia bete egiten da”–; edo ateratzen badira, eraiki nahi den memoriaren zerbitzura egingo duten baldintzak onartuta egitea. Eta baldintzak ez dira inoiz berberak, hauek eskubide eta bizikidetzari baino, indar harremanen orekari lotuak baitaude.

Gizartean oso sustraitua dago Aljerreko negoziazioak edo Lizarra-Garaziko su-etenaren ondoren negoziazio teknikoak –bakea presoen truke– ez zela gaitza izango. Baina ETAk trenak galdu ditu bata bestearen atzetik eta indar gabe heldu da azken geltoki honetara. Edo, beste era batera azaldu nahi bada, bere helburuak beste era batera hobeto lor ditzakeela iritzi dio.

Hemendik hamar urtera begira, zein memoria lanketa gailenduko da, bizikidetza bultzatuko duena edo garailearen kronika finkatze aldera egingo duena? ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat

Atxaspi Hotela



Relax gaua
(astean zehar)
bi lagunentzako

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1

Ekainberri

Ekain berri



3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2

EUREKA! zientzia museoa



2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3

Joxan Artze Nola belztu behar zuria EMANALDIA



5 lagunentzako bina sarrera
Maiatzak 3 larunbata · 22:00
Sutegi Auditoriumean

Usurbil GIPUZKOA

Jexux Artze Kultur Elkartea

4

Bixente ARGIA rentzako



Bixente Ameztoy ARGIA azalak

1978. urtean Bixente Ameztoyk
Zeruko Argia aldizkarian egindako
36 azal laminatan inprimatuak

2 lamina sorta

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2408. Argia)

HAMLET - DONIBANE GARAZI

- Josu Jimenez Muro (Donostia)
- Joana Etxart (Maule)

HAMLET - MARKINA

- Ibon Garmendia Larrañaga (Urrestila)
- Manu Labayen Leizeaga (Hondarribia)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Oresako Udal Liburutegia (Orexa)
- Eburne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)
- Miren Garcia Dalmau (Hernani)

EUREKA ZIENTZIA MUSEOA

- Jon Mikel Barandiaran Arratibel (Errenteria)
- San Pedro Udal Liburutegia (Pasai San Pedro)

OKATXU komikia

- STEE-EILAS (Gasteiz)
- Xabier Azkue Ibarbia (Zumaia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30


Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia





apirilak 10

20:00

Biteri Kultur Etxea

Hernani

Ametz
Arzallus
Joxan
Goikoetxea

hies



Antolatzaileak:

Laguntzaileak:

Hernani
MUSIK



aniza
komunikazio grafikoa

argia